Azala 5 ona osoa 14/1/70 03:27 Página 1

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA. ERREALITATE SOZIAL ETA EKONOMIKOA REALIDAD SOCIAL Y ECONÓMICA

# GIPUZKOA

## ERREALITATE SOZIAL ETA EKONOMIKOA
## REALIDAD SOCIAL Y ECONÓMICA



**Europar Batasuna eratu zenetik 50 urte eta bertako partaide garenetik 20 urte igaro ondoren**

**A los 50 años de la constitución de la Unión Europea y a los 20 años de la integración**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

**KOORDINAZIOA**
Erakundeekiko Konpromisoen eta Udalentzako Laguntzaren Zerbitzua
Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza

Errotaburu pasealekua, 2 - 10. solairua
20018 Donostia

Telefonoa: 943 11 30 49
Faxa: 943 11 32 96

www.gipuzkoa.net

**LAGUNTZA TEKNIKOA**
IKEI, S.A.

2007ko azaroa

ISBN: 978-84-7907-578-1
Lege Gordailua: SS-1613-2007

Michelena Artes Gráficas, S.L.
Astigarraga (Gipuzkoa)

# GIPUZKOA

## ERREALITATE SOZIAL ETA EKONOMIKOA
## REALIDAD SOCIAL Y ECONÓMICA



**Europar Batasuna eratu zenetik 50 urte eta bertako partaide garenetik 20 urte igaro ondoren**

**A los 50 años de la constitución de la Unión Europea y a los 20 años de la integración**


**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

## AURKEZPENA

Orain dela hogei urte bihurtu zen Gipuzkoa Europar Batasuneko partaide eta, halaber, duela berrogeita hamar urte eratu zen Europar Batasuna. Berriki ospatu da bi gertaeren urteurrena, eta abagune hori baliatu nahi izan dugu dokumentu hau egiteko.

Horrela bada, Ogasun eta Finantza Departamentuak Europar Batasunaren egiturazko baterako finantzaketa Gipuzkoan kudeatzeko ardura izanik, interesgarri iritzi diogu Gipuzkoako errealitate sozial eta ekonomikoa iraganaren nahiz orainaren ikuspegitik aztertzeari.

Aztertu nahi dugun aldian, Gipuzkoako gizartean eta ekonomian gertatu den aldaketa oso sakona izan da. Azken berrogeita hamar urteotan izandako aldaketak, eta baita azken hogei urteotan gertatutakoak ere, oso intentsuak izan dira, eta garai horiek bizi izan dituzten pertsona batzuentzat nekeza da, zenbaitetan, gure gizartea urte haietan nolakoa zen gogoratzea.

Era berean, uste dut biztanle gazteenentzat edo azken urteotan beste leku batzuetatik hona etorri diren biztanleentzat interesgarria dela bilakaera hori laburbiltzen duen dokumentu zehatz bat eskura izatea.

Egun dugun egoeran oinarrituta, hau da, lortu dugun bizi-maila Gipuzkoako herritarrentzat pozbide dela kontuan hartuta, interesgarritzat jo dugu azken urteotako ibilbide horretan guztiz garrantzitsuak izan diren alderdi erabakigarriei buruzko hausnarketa egitea.

Eta hori hainbat arrazoi dela eta.

Lehenik eta behin, ekonomian zein gizartean lortu dugun ongizate-mailak, berez, ez duelako inolaz ere bermatzen egoera horrek etorkizunean jarraitutasuna izango duela; hala ere, aintzakotzat hartu behar dugu Gipuzkoako gizarteak erakutsi duen sendotasuna, horrek gizarteari berari gaitasun handia ematen baitio aukerak baliatzeko eta erronka berriei behar bezala aurre egiteko.

Ildo horretan, zalantzak sortu dira ongizatearen iraunkortasunaren inguruan. Bai Gipuzkoan, bai Europan, begien bistakoa da pertsona batzuek arriskuan ikusten dutela etorkizunean izan dezaketen ongizatea, hainbat alderdi direla kausa, hala nola: globalizazioa eta aniztasuna, lehiakortasuna, demografia edo klimaren aldaketa.

Bigarrenez, uste zabaldua delako etorkizunaren gakoak gaur egun jadanik agerian daudela, eta agerian egon direla azken hamarkadetako ibilbidean, neurri ezberdinetan izan arren.

Beraz, etorkizunari begiratzeko, uste dugu egokia izan daitekeela errealitate sozialaren eta ekonomikoaren azterketa egitea.

Eta, horrez gain, ongialdi ekonomikoa eta gizarte-gogobetetasuna ditugun une hau egokia da Gipuzkoako gizarteak eta ekonomiak dituzten epe ertain eta laburreko erronkei aurre egiteko. Hots, datozen hamarkadei begira sor daitezkeen erronkak eta estrategiari buruzko hausnarketa “fase goiztiarrean” aztertzea eta bultzada berria ematea. Horretarako ere balio behar du orain egin nahi dugun analisi honek.

Ingurune hori izanda, Europar Batasuneko partaide garenetik hogei urte eta Erromako Ituna sinatu zenetik berrogeita hamar urte bete direla ospatzen dugun honetan, abagune ona da Gipuzkoako errealitate sozialaren eta ekonomikoaren bilakaera aztertzeko; izan ere, aipatutako espazio horren barruan egotea, zalantzarik gabe, erdietsi dugun ongizatearen alderdi benetan garrantzitsua da.

Xede nagusi bat lortu nahi dugu, hau da: hausnarketa egitea, hobetzen jarraitzea ahalbidetzen diguna, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatu eta gure herritarrek erdietsi nahi dituzten ekonomi garapenaren eta gizarte-kohesioaren maila, Europako lurralde aurreratuenek dutena alegia, lortzeko aukera eskaintzen diguna.

**Pello Gonzalez Argomaniz**
Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua

## PRESENTACIÓN

El presente documento se ha efectuado con motivo de la reciente conmemoración de los veinte años de la incorporación de Gipuzkoa a la Unión Europea, así como de los cincuenta años desde la constitución de la misma.

En este marco, desde el Departamento de Hacienda y Finanzas, como responsable de la Gestión de la cofinanciación estructural de la Unión Europea en Gipuzkoa, hemos considerado de interés efectuar una mirada al pasado y al presente de la realidad social y económica de Gipuzkoa.

El cambio social y económico acaecido en Gipuzkoa en el periodo analizado ha sido muy profundo. Las modificaciones experimentadas en los últimos cincuenta años, y también en los últimos veinte años, han sido tan intensas que muchas veces cuesta recordar, para aquellas personas que vivían entonces, como era nuestra sociedad en aquellos años.

Y asimismo, para la población más joven o para la que ha llegado en los últimos años proveniente de otros lugares, considero de interés disponer de un breve documento riguroso de síntesis de dicha evolución.

Partiendo de una situación de adecuada satisfacción de la ciudadanía guipuzcoana con el nivel de vida alcanzado, se ha considerado de interés efectuar una breve reflexión sobre los aspectos clave determinantes de dicha trayectoria.

Por varios motivos.

En primer lugar, porque la situación alcanzada de bienestar económico y social en ningún caso garantiza "per se" su continuidad en el futuro, aunque debe considerarse que la fortaleza demostrada de la sociedad guipuzcoana le otorga una notable capacidad para aprovechar las oportunidades y afrontar adecuadamente los nuevos desafíos.

En este sentido, existen interrogantes sobre la perdurabilidad del bienestar. Tanto en Gipuzkoa como el conjunto de Europa, es palpable la existencia de personas que sienten amenazado su bienestar futuro por aspectos tales como la globalización y la diversidad, la competitividad, la demografía o el cambio climático.

En segundo lugar, porque se considera que las claves del futuro ya están en buena parte presentes, aunque en diversa medida, en la situación actual y en la trayectoria de las últimas décadas.

Por tanto, para mirar el futuro se considera pertinente efectuar un reconocimiento de la realidad social y económica.

Y además, el momento actual de bonanza económica y satisfacción social es adecuado para abordar los retos a medio y largo plazo de la sociedad y de la economía guipuzcoana. Es decir, analizar y relanzar en una "fase temprana" los retos y la reflexión estratégica para las próximas décadas. Para ello debe servir asimismo el presente análisis.

En este contexto, la celebración de los veinte años de incorporación a la Unión Europea y los cincuenta años del Tratado de Roma, constituye una buena oportunidad para efectuar el análisis de la evolución de la realidad social y económica de Gipuzkoa, dado que la incorporación a dicho espacio ha constituido indudablemente un factor relevante del bienestar alcanzado.

Con un objetivo central: disponer de una reflexión que nos permita seguir mejorando y prepararnos para afrontar más favorablemente los retos del futuro y alcanzar el nivel de desarrollo económico y de cohesión social al que nuestra ciudadanía aspira, el de los territorios más avanzados de Europa.

**Pello Gonzalez Argomaniz**
Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas

## AURKIBIDEA

Orrialdea


**1. IKUSPEGI OROKORRA** ..... **11**

1.1. SARRERA ..... 13
1.2. DEMOGRAFIA ..... 16
1.3. GIZARTE ALDAKETA ..... 17
1.4. EKONOMIA ..... 19
1.5. LEHIAKORTASUNA ETA GLOBALIZAZIOA ..... 20
1.6. PERTSONAK ETA JARDUERA EKONOMIKOA ..... 21
1.7. LURRALDEA ETA MUGIKORTASUNA ..... 22
1.8. BIZI-KALITATEA ..... 23

**2. DEMOGRAFIA** ..... **25**

2.1. BIZTANLERIA ..... 27
2.2. ADINA ..... 28
2.3. BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA ..... 29
2.4. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK ..... 30
2.5. MIGRAZIOAK ..... 31

**3. GIZARTE ALDAKETA** ..... **33**

3.1. ERRENTA ..... 35
3.2. HEZKUNTZA ..... 36
3.3. ALDAKETA DEMOGRAFIKOA ..... 37
3.4. EMAKUMEAK ETA LAN JARDUERA ..... 38
3.5. IMMIGRAZIOA ETA KULTUR ANIZTASUNA ..... 39

**4. EKONOMIA** ..... **41**

4.1. ABERASTASUNA SORTZEA ..... 43
4.2. SEKTORE HANDIAK ..... 44
4.3. INDUSTRI OINARRIA ..... 45
4.4. ENPRESEI EMANDAKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATERAKO ZERBITZUAK ..... 46
4.5. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ..... 47

**5. LEHIAKORTASUNA ETA GLOBALIZAZIOA** ..... **49**

5.1. PRODUKTIBITATEA ..... 51
5.2. ENPRESA BERRIKUNTZA ..... 52
5.3. I+G ..... 53
5.4. KANPOKO HARTU-EMANAK ..... 54
5.5. KANPOKO LEHIAKORTASUNA ..... 55

**6. PERTSONAK ETA JARDUERA EKONOMIKOA** ..... **57**

6.1. ENPLEGUA ..... 59
6.2. ENPLEGU ORDAINDUA DUTEN PERTSONAK ..... 60

# INDICE

Página

**1. UNA VISIÓN GENERAL .......... 11**
- 1.1. INTRODUCCIÓN .......... 13
- 1.2. LA DEMOGRAFÍA .......... 16
- 1.3. EL CAMBIO SOCIAL .......... 17
- 1.4. LA ECONOMÍA .......... 19
- 1.5. LA COMPETITIVIDAD Y LA GLOBALIZACIÓN .......... 20
- 1.6. LAS PERSONAS Y LA ACTIVIDAD ECONÓMICA .......... 21
- 1.7. EL TERRITORIO Y LA MOVILIDAD .......... 22
- 1.8. LA CALIDAD DE VIDA .......... 23

**2. LA DEMOGRAFÍA .......... 25**
- 2.1. LA POBLACIÓN .......... 27
- 2.2. LA EDAD .......... 28
- 2.3. LA PIRÁMIDE DE POBLACIÓN .......... 29
- 2.4. LOS NACIMIENTOS Y LAS DEFUNCIONES .......... 30
- 2.5. LAS MIGRACIONES .......... 31

**3. EL CAMBIO SOCIAL .......... 33**
- 3.1. LA RENTA .......... 35
- 3.2. LA EDUCACIÓN .......... 36
- 3.3. EL CAMBIO DEMOGRÁFICO .......... 37
- 3.4. LAS MUJERES Y LA ACTIVIDAD LABORAL .......... 38
- 3.5. LA INMIGRACIÓN Y LA DIVERSIDAD CULTURAL .......... 39

**4. LA ECONOMÍA .......... 41**
- 4.1. LA GENERACIÓN DE RIQUEZA .......... 43
- 4.2. LOS GRANDES SECTORES .......... 44
- 4.3. LA BASE INDUSTRIAL .......... 45
- 4.4. LOS SERVICIOS A LAS EMPRESAS Y PARA LA CALIDAD DE VIDA .......... 46
- 4.5. LA AGRICULTURA Y LA PESCA .......... 47

**5. LA COMPETITIVIDAD Y LA GLOBALIZACIÓN .......... 49**
- 5.1. LA PRODUCTIVIDAD .......... 51
- 5.2. LA INNOVACIÓN EMPRESARIAL .......... 52
- 5.3. LA I+D .......... 53
- 5.4. LOS INTERCAMBIOS CON EL EXTERIOR .......... 54
- 5.5. LA COMPETITIVIDAD EXTERIOR .......... 55

**6. LAS PERSONAS Y LA ACTIVIDAD ECONÓMICA .......... 57**
- 6.1. EL EMPLEO .......... 59
- 6.2. LAS PERSONAS CON EMPLEO REMUNERADO .......... 60

6.3. PRESTAKUNTZA ETA GIZA KAPITALA ... 61
6.4. ENPLEGUA SEKTORE HANDIETAN ... 62
6.5. LANGABEZIA ... 63

**7. LURRALDEA ETA MUGIKORTASUNA ... 65**
7.1. BIZTANLERIAREN BANAKETA ... 67
7.2. PERTSONEN MUGIKORTASUNA ... 68
7.3. TRAFIKOA ... 69
7.4. PASAIAKO PORTUA ... 70
7.5. HONDARRIBIKO AIREPORTUA ... 71

**8. BIZI-KALITATEA ... 73**
8.1. BIZI-BALDINTZAK ... 75
8.2. KONTSUMOA ... 76
8.3. AURREZTEA ... 77
8.4. ETXEBIZITZA ... 78
8.5. POBRETASUNA ETA ONGIZATERIK EZA ... 79

**9. EUSKARA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA ... 81**
9.1. EUSKARA ... 83
9.2. INFORMAZIOAREN GIZARTEA ... 84

6.3. LA FORMACIÓN Y EL CAPITAL HUMANO ..... 61
6.4. EL EMPLEO EN GRANDES SECTORES ..... 62
6.5. EL DESEMPLEO ..... 63

**7. EL TERRITORIO Y LA MOVILIDAD ..... 65**
7.1. LA DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN ..... 67
7.2. LA MOVILIDAD DE LAS PERSONAS ..... 68
7.3. EL TRÁFICO ..... 69
7.4. EL PUERTO DE PASAJES ..... 70
7.5. EL AEROPUERTO DE HONDARRIBIA ..... 71

**8. LA CALIDAD DE VIDA ..... 73**
8.1. LAS CONDICIONES DE VIDA ..... 75
8.2. EL CONSUMO ..... 76
8.3. EL AHORRO ..... 77
8.4. LA VIVIENDA ..... 78
8.5. LA POBREZA Y LA AUSENCIA DE BIENESTAR ..... 79

**9. EL EUSKERA Y LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN ..... 81**
9.1. EL EUSKERA ..... 83
9.2. LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN ..... 84

# 1

# IKUSPEGI OROKORRA
# UNA VISIÓN GENERAL



# 1. IKUSPEGI OROKORRA

## 1.1. SARRERA

Dokumentu honetan aztertu nahi ditugu, era sintetikoan eta egitura bati jarraiki, Gipuzkoan, azken hamarkadetan, gizartean eta ekonomian gertatu diren aldaketak, eta horretarako, denboran funtsezkoak diren bi erreferentzia hartu ditugu abiagune: 1957an Europar Batasuna eratu zenekoa eta 1986an Europar Batasunaren barruan sartu ginenekoa.

Burutu nahi dugun lana oso garrantzitsua dela eta lan hori era sintetikoan egin nahi dugula kontuan izanda, analisia funtsezko zazpi alorretan banatu dugu.

Hauek dira alorrak:

- Demografia
- Gizarte-aldaketa
- Ekonomia
- Lehiakortasuna eta globalizazioa
- Pertsonak eta jarduera ekonomikoa
- Lurraldea eta mugikortasuna
- Bizi-kalitatea

# 1. UNA VISIÓN GENERAL

## 1.1. INTRODUCCIÓN

El presente documento aborda de forma sintética y estructurada los principales cambios sociales y económicos acaecidos en Gipuzkoa durante las últimas décadas, a partir de dos referencias temporales clave: la constitución de la Unión Europea en 1957 y la incorporación a la misma en 1986.

La relevancia del trabajo propuesto y el objetivo de síntesis perseguido han aconsejado estructurar el análisis en siete áreas clave.

Estas áreas son las siguientes:

- La demografía
- El cambio social
- La economía
- La competitividad y la globalización
- Las personas y la actividad económica
- El territorio y la movilidad
- La calidad de vida

**Funtsezko eremuak**
Areas clave



Alor bakoitza bost gairen arabera garatu dugu. Gai horien bidez, Gipuzkoako gizarteak azken hogei zein berrogeita hamar urteetan izan dituen aldaketen gakoak era agregatuan eta bateratuan azaldu nahi ditugu.

Eta, horrekin batera, alor nagusi guztiei atxikirik dauden bi gai erantsi ditugu, euskara eta informazioaren gizartea, alegia.

Hautatutako gaiak eta alorrak askoz ere gehiago izan daitezkeen arren, Gipuzkoako gizartearen eta ekonomiaren bilakaeran azken hamarkadetan garrantzi handiena izan duten gaiak aztertzea erabaki dugu. Izan ere, gai horiei buruzko informazio ugari eta ongi egiaztatua dugu eta, gainera, etorkizunari begira “nahitaezko” erreferentziak dira.

Azkenik, proposatzen ditugun 37 gaiek, gure iritziz, ikuspegi ona eskaintzen dute errealitate sozial eta ekonomikoan gertatutako aldaketa erabakigarriak zeintzuk izan diren zehazteko, eta horrez gain, aurretiazko erreferentzia-ingurune historikotzat jo ditzakegu.

Gaiak, aipatutako alor nagusitan bereizirik, hauek dira:

Cada una de las áreas se ha desarrollado en cinco temas que intentan enmarcar las claves de los cambios de la sociedad guipuzcoana en los últimos veinte y cincuenta años, de manera agregada y conjunta.

Y, adicionalmente, se han incorporado dos temas que atraviesan el conjunto de áreas clave, el euskera y la sociedad de la información.

Aunque el conjunto de temas y áreas seleccionadas puede ampliarse significativamente, se ha optado por analizar aquellos temas que se han considerado más claves de la evolución social y económica de Gipuzkoa durante las últimas décadas, para los que existe una información cuantificada y suficientemente contrastada y que, adicionalmente, constituyen referencias “obligadas” para el futuro.

Finalmente, se considera que los 37 temas propuestos proporcionan una visión suficiente de los cambios acaecidos y determinantes de la realidad social y económica, pudiendo calificarse como marco de referencia histórico preliminar.

Estos temas, agrupados en las áreas clave mencionados, son los siguientes:

### Demografia
- Biztanleria
- Adina
- Biztanleriaren piramidea
- Jaiotzak eta heriotzak
- Migrazioak

### Gizarte-aldaketa
- Errenta
- Hezkuntza
- Aldaketa demografikoa
- Emakumeak eta lan-jarduera
- Immigrazioa eta kultur aniztasuna

### Ekonomia
- Aberastasuna sortzea
- Sektore handiak
- Industri oinarria
- Enpresei emandako zerbitzuak eta bizi-kalitaterako zerbitzuak
- Nekazaritza eta arrantza

### Lehiakortasuna eta globalizazioa
- Produktibitatea
- Enpresa-berrikuntza
- I+G
- Kanpoko hartu-emanak
- Kanpoko lehiakortasuna

### Pertsonak eta jarduera ekonomikoa
- Enplegua
- Enplegu ordaindua duten pertsonak
- Prestakuntza eta giza kapitala
- Enplegua sektore handietan
- Langabezia

### Lurraldea eta mugikortasuna
- Biztanleen banaketa
- Pertsonen mugikortasuna
- Trafikoa
- Pasaiako portua
- Hondarribiko aireportua

### Bizi-kalitatea
- Bizi-baldintzak
- Kontsumoa
- Aurreztea
- Etxebizitza
- Pobretasuna eta ongizaterik eza

### Euskara eta informazioaren gizartea
- Euskara
- Informazioaren gizartea

Jarraian, dokumentu honetan aztertuko ditugun alderdi nagusien laburpena dugu, aipatutako azterketa-alor nagusietan banatuta.

### La demografía
- La población
- La edad
- La pirámide de población
- Los nacimientos y las defunciones
- Las migraciones

### El cambio social
- La renta
- La educación
- El cambio demográfico
- Las mujeres y la actividad laboral
- La inmigración y la diversidad cultural

### La economía
- La generación de riqueza
- Los grandes sectores
- La base industrial
- Los servicios a las empresas y para la calidad de vida
- La agricultura y la pesca

### La competitividad y la globalización
- La productividad
- La innovación empresarial
- La I+D
- Los intercambios con el exterior
- La competitividad exterior

### Las personas y la actividad económica
- El empleo
- Las personas con empleo remunerado
- La formación y el capital humano
- El empleo en grandes sectores
- El desempleo

### El territorio y la movilidad
- La distribución de la población
- La movilidad de las personas
- El tráfico
- El Puerto de Pasajes
- El Aeropuerto de Hondarribia

### La calidad de vida
- Las condiciones de vida
- El consumo
- El ahorro
- La vivienda
- La pobreza y la ausencia de bienestar

### El euskera y la sociedad de la información
- El euskera
- La sociedad de la información

A continuación se incluye una breve síntesis de los principales aspectos abordados en el presente documento, estructurada en las áreas clave de análisis mencionadas.

## 1.2. DEMOGRAFIA

Gipuzkoan, gaur egun, 679.000 pertsona bizi dira. Kopuru horrek 200.000 pertsona baino gehiagotan gainditzen du 1957. urtean, Europar Batasuna eratu zen urtean alegia, bertan bizi ziren pertsonen kopurua. Hala ere, 1986. urtean –Europar Batasunean sartu ginen urtea– zeuden biztanleen kopurua baino zertxobait txikiagoa da.

Azkeneko hiru hamarkadetan, Gipuzkoako biztanleriaren kopurua egonkortu egin dela hauteman daiteke, eta baita zahartzeko joera dagoela ere. Bi fenomeno horiek jaiotza-tasaren murrizketa handiaren, heriotza-tasaren hobekuntzaren eta migrazio-mugimenduen joera aldatzearen ondorio dira.

Gipuzkoako biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela nabari daiteke, 64 urtetik gorako biztanleen portzentajeak igoera handia izan duelako: 1960an % 7 zen, eta 2006. urtean % 18. Biztanleriaren batez besteko adina ere handitu egin da: 1960an 30 urtekoa zen, eta gaur egun 42 urtekoa.

Beste alde batetik, Europar Batasuneko kide bihurtu aurreko hamarkadatik (1975) gaur egunera arte, adin ugalkorreko emakumeek dituzten seme-alaben kopurua erdiraino murriztu da, hau da, 2,7tik 1,4ra.

Migrazio-mugimenduei dagokienez, Europar Batasuna 1957. urtean eratu zenetik 1970eko hamarkadaren erdiraino biztanle immigrante ugari etorri dira Gipuzkoako Lurraldera.

1970eko hamarkadaren bigarren erdian, migrazioaren joera aldatu egin zen, eta Europar Batasunean sartu ginenean saldoa negatiboa zen, argi eta garbi. 1990eko hamarkadan, zertxobait igo zen, eta mendearen aldaketarekin batera positibo bilakatu zen.

## 1.2. LA DEMOGRAFÍA

Las 679.000 personas residentes en Gipuzkoa en la actualidad, superan en más de 200.000 a las residentes en 1957, año de constitución de la Unión Europea, aunque son ligeramente inferiores a los habitantes en el año 1986 en el que se produce la incorporación a la Unión Europea.

Durante las tres últimas décadas se observa una estabilización de la población guipuzcoana y una tendencia al envejecimiento, como resultado de la fuerte reducción de la tasa de natalidad, la mejora de la tasa de mortalidad y el cambio de signo de los movimientos migratorios.

El paulatino envejecimiento de la población guipuzcoana se observa en el fuerte aumento del porcentaje de población mayor de 64 años, del 7% en 1960 al 18% en 2006. La edad media de la población se incrementa desde 30 años en 1960 hasta 42 años en la actualidad.

Por otra parte, desde la década previa a la incorporación (1975) hasta la actualidad el número de descendientes por mujer en edad fértil se reduce a la mitad, de 2,7 a 1,4.

Por lo que respecta a los movimientos migratorios, desde la constitución de la Unión Europea en 1957 hasta mediados de la década de los años 70, la afluencia de población inmigrante al territorio guipuzcoano fue muy intensa.

En la segunda mitad de los años 70 el saldo migratorio cambia de signo y en el momento de la integración en la Unión es claramente negativo, atenuándose en la década de los 90 para tornarse ligeramente positivo con el cambio de siglo.

## 1.3. GIZARTE ALDAKETA

Gipuzkoako gizartearen aldaketa oso sakona izan da azkeneko berrogeita hamar urteotan, eta areagotuz joan da pixkanaka, orainaldira hurbildu ahala.

Aldaketa horren azterketa egiteko, oinarritzat har daitezke hainbat ikuspegi. Dokumentu honetan bost gai hautatu ditugu: errenta, hezkuntza, aldaketa demografikoak eta zahartzea, emakumeen egoera eta immigrazioa eta kultur aniztasuna. Gizarte-aldaketarekin zuzenean lotuta dauden beste alderdi batzuk, bestalde, bizi-kalitatearen atalean aztertuko ditugu.

Azkeneko berrogeita hamar urteotan, biztanle bakoitzeko errenta erreala ia laurekin biderkatu da, eta Europar Batasuneko kide garenetik bikoiztu egin da. Hobekuntza hori Europar Batasunarekin lotuta dago, zalantzarik gabe, eta horretan erabakigarriak izan dira, baita ere, beste alderdi batzuk; horien artean, bereziki nabarmendu behar da euskal administrazioaren garapenak ekonomian eta gizartean izan duen eragina.

Oso kontuan hartzeko alderdi bat, ekintza publiko positiboari lotuta, gizartearen esparruko alor batzuetan egin den aurrerapena da, hala nola hezkuntzan eta osasungintzan. Horrela bada, hezkuntzari dagokionez esan behar dugu, erreferentziazko adierazle gisa, gaur egun bost pertsonatatik batek goimailako ikasketak egin dituela. Hogei urte lehenago, aldiz, proportzioa txikiagoa zen, hamarretik pertsona batek bakarrik egin baitzituen ikasketa horiek.

Beste alde batetik, begien bistakoa da aldaketa demografikoek errealitate sozial eta ekonomikoan izan duten eragina. Aldaketen artean aipatzekoak dira biztanleriaren zahartzea eta bizi-itxaropena handitzea, jaiotza-tasaren neurritasuna, beste kultur eredu batzuk dituzten pertsonen immigrazioa handitzea, eta gero eta helduagoa den biztanleria aktiboa ordezkatzeko beharra zein biztanleria horrek prestakuntza egokia izateko beharra.

Aldaketa horiekin batera, beste aldaketa azkar bat gertatzen ari da bizi-ereduetan, familia-eredu berriak, harremanak izateko era berriak eta gizarte-kapitala sortzeko era berriak ere agertu direlako.

Guztiaren gainetik, zahartzea erronka bat da gizarte osoarentzat, eta helburua bizitza zoriontsuaren urteen kopurua gehitzea. Ildo horretan, osasunaren kulturari esker, eta helduarora iritsi baino lehenago zainketa eta arreta eskainita, jadanik ahalbidetzen ari da zahartzarora baldintza hobeagoetan iristea.

Emakumeen egoera sakonki aldatu da azkeneko hamarkadetan. Lan-esparruari dagokionez, 1960. urtean, lan-merkatuan enplegua zuten bost pertsonatatik bat baizik ez zen emakumea. Parte-hartze hori %42ra iritsi da dagoeneko, eta igoera handia gertatu da azken urteotan.

## 1.3. EL CAMBIO SOCIAL

El cambio de la sociedad guipuzcoana ha sido muy profundo en los últimos cincuenta años, en un proceso de paulatina aceleración a medida que nos acercamos al presente.

El análisis de este cambio puede efectuarse desde diversas vertientes. En el presente documento se han seleccionado cinco temas: la renta, la educación, los cambios demográficos y el envejecimiento, la situación de las mujeres y la inmigración y la diversidad cultural. Otro conjunto de aspectos asimismo relacionados directamente con el cambio social se abordan en el apartado de calidad de vida.

En los últimos cincuenta años la renta real por habitante se ha multiplicado casi por cuatro y se ha duplicado desde la incorporación, mejora indudablemente relacionada con la Unión Europea. Y en la que han incidido asimismo y decisivamente otros factores, entre los que debe destacarse la gran incidencia económica y social del desarrollo de la administración vasca.

Un aspecto destacable y asociado a la positiva acción pública es el avance de los ámbitos más sociales como la educación y la sanidad. Así, por lo que se refiere a la educación, y como indicador de referencia, en la actualidad una de cada cinco personas ha cursado estudios superiores, cuando veinte años antes la proporción era de una de cada diez.

Por otra parte, la incidencia de los cambios demográficos en la realidad social y económica es muy evidente. Entre estos pueden destacarse el envejecimiento de la población y el aumento de la esperanza de vida, la moderación de la natalidad, el crecimiento de la inmigración con otras pautas culturales, así como las necesidades de recambio y adecuación formativa de la población activa, cada vez más madura.

Junto a estos cambios se está registrando un cambio acelerado en los estilos de vida, con nuevos modelos de familia y nuevas formas de relación y de generación de capital social.

El envejecimiento es, ante todo, un reto para el conjunto de la sociedad, con el objetivo de incrementar el número de años de vida feliz. En este sentido, la cultura de la salud y el cuidado y la atención en las etapas previas a la madurez ya está propiciando una mejor condición de llegada a la vejez.

La situación de las mujeres ha cambiado profundamente en las últimas décadas. En el ámbito laboral, en 1960 apenas una de cada cinco personas empleadas en el mercado de trabajo era mujer. Esta participación alcanza ya el 42%, con un fuerte avance en los últimos años.

Horrela bada, Europar Batasuneko kide garenetik igaro diren bi hamarkadetan, gizarte-ingurune aproposa sortu da behin emakumea lan-merkatuaren barruan sartu denean, bertan jarrai dezan. Aldi horretan, argi eta garbi ikusi ahal izan da familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateratzea erronka handia dela.

Iraganeko zein etorkizuneko gizarte-aldaketarekin lotuta dagoen bosgarren alderdia immigrazioa eta kultur aniztasuna da.

Horren inguruan datu hauek ditugu: 1960. urtean, atzerrian jaio eta Gipuzkoan bizi ziren biztanleak ez ziren biztanleria osoaren % 1era iristen. Gaur egun, % 5etik gorakoak dira, hau da, duela 20 urteko kopuruaren laukoitza. Biztanle horiek aniztasunaren eta gizarte-ekarpenaren bidez gure gizartera ekarri dituzten elementu berriak agerikoak dira, eta aldi berean, erronka garbia sortu da, pertsona horiek datozen urteetan gure kulturan integratzeko eta gizarteratzeko.

Así, en las dos décadas transcurridas desde la incorporación europea se genera el escenario social propicio para que, una vez incorporada la mujer al mercado laboral, no lo abandone. En este periodo se plasma con nitidez el reto de la conciliación de la vida familiar y laboral.

El quinto aspecto relacionado con el cambio social pasado y futuro se refiere a la inmigración y la diversidad cultural.

Al respecto, en 1960 la población nacida en el extranjero residente en Gipuzkoa no llegaba al 1% de la población total. En la actualidad ya supera el 5%, cuadriplicando la cifra de hace 20 años. La contribución de la misma a nuestra sociedad, a través de la diversidad y la contribución social es palpable, planteándose asimismo un claro desafío para su adecuada integración cultural y social en los próximos años.

## 1.4. EKONOMIA

Europar Batasunean sartu ginenetik igaro diren hogei urteetan bikoiztu egin da, termino errealetan, Gipuzkoan sortutako aberastasuna, eta seirekin biderkatu da azkeneko berrogeita hamar urteetan.

Gipuzkoako ekonomiaren oinarria industria sendo eta berritua izan da eta, horrekin batera, hirugarren sektoreko jardueren garapen gero eta handiagoa.

Gipuzkoa Europar Batasuneko kide izateak berekin ekarri zuen jarduera ekonomikoaren garapenaren erreferentzia-ingurunea guztiz aldatzea. Ingurune europar partekatu eta lehiakorraren barruan, araudietan, merkataritza-harremanetan, eta enpresen arteko eta pertsonen arteko trukeetan gertatutako aldaketak gardentasun handiz islatuta daude Gipuzkoako aberastasunaren goraldian.

Era berean, Europar Batasunaren barruan gaudenetik, Gipuzkoa hazten ari da, bertako industri jarduera sendotu eta berritzen ari da, eta jarduera berrien bidez indartzen ari da zerbitzuen sektorea, enpleguaren eta aberastasunaren sorreran gero eta zerikusi handiagoa izanik.

Azken hamarkadan, eta bereziki joan den mendeko azken urteetan, Gipuzkoako industri enpresen dinamismoak –berrikuntzan eta kanpora irekitzean oinarrituta, berritutako lehiakortasunaren euskarri gisa– berekin ekarri du industriak Barne Produktu Gordinera egindako ekarpena, portzentajeetan, mantentzea.

Ekonomia garatuetan bezala, hirugarren sektorean produkziora ekarpen handiagoa egiteko joera nagusitu da, enpresei zerbitzuak eskaintzeko sektorearen dinamismo handian eta bizi-kalitaterako zerbitzuen ekarpenean oinarrituta.

Enpresa-jarduerak dituen konplexutasunak eta lehiakor izateko eta espezializatzeko beharrak hedapen handia eragin dute azken hamarkadan enpresei eskainitako zerbitzuetan. Hala eta guztiz ere, pertsonen bizi-kalitateari zuzenago lotuta dauden zerbitzuak –hala nola, merkataritza, ostalaritza, irakaskuntza eta osasungintza– hirugarren sektoreko jardueraren erdigunean mantentzen dira.

Azkenik, Gipuzkoan azken hamarkadetan gizartearen eta ekonomiaren esparruetan izandako garapen handiarekin batera, nekazaritza- eta arrantza-jardueren murriztea gertatu da, ekonomia garatu guztietan gertatzen den prozesua baita.

Murrizketa horren jatorri dira, alde batetik, lortu diren diru-sarrerak eta produktibitatea, alderaketa eginda, txikiagoak izatea eta, bestaldetik, aipatutako jarduerak garatzeko baliabide fisikoak mugatuta egotea.

## 1.4. LA ECONOMÍA

En los veinte años transcurridos desde la incorporación a la Unión Europea se ha duplicado en términos reales la riqueza generada en Gipuzkoa y en los últimos cincuenta años se ha multiplicado por seis.

La base económica guipuzcoana se ha sustentado en una sólida y renovada industria, junto con un creciente desarrollo de actividades terciarias.

La incorporación a la Unión Europea, contribuyó a un cambio radical de marco de referencia para el desarrollo de la actividad económica. Los cambios acontecidos en normativas, relaciones comerciales, intercambios entre las empresas y entre las personas, en un contexto europeo compartido y competitivo, tienen un reflejo nítido en el aumento de la generación de riqueza en Gipuzkoa.

Asimismo, desde la incorporación a la Unión, Gipuzkoa crece consolidando e innovando su actividad industrial y reforzando con nuevas actividades el sector de servicios, que adquiere una presencia cada vez mayor en la generación de empleo y riqueza.

En la última década, y particularmente en los últimos años del siglo pasado, el dinamismo de las empresas industriales guipuzcoanas, sustentada en la innovación y en la apertura exterior como bases de su renovada competitividad, origina que la industria mantenga su contribución al PIB en términos porcentuales.

Al igual que en las economías desarrolladas, el sector terciario adquiere tendencialmente una mayor aportación a la producción, sustentada en el fuerte dinamismo del sector de servicios a las empresas y en la aportación de los servicios para la calidad de vida.

La complejidad y necesidades competitivas y de especialización de la actividad empresarial han originado una fuerte expansión de los servicios a empresas durante la última década. No obstante, los servicios asociados más directamente a la calidad de vida de las personas, tales como los servicios comerciales, de hostelería y de enseñanza y sanidad, siguen constituyendo el núcleo central de la actividad terciaria.

Finalmente, el fuerte desarrollo económico y social de Gipuzkoa durante las últimas décadas ha llevado aparejado una disminución de las actividades agrarias y pesqueras, proceso común a todas las economías desarrolladas.

Esta disminución se deriva tanto de los menores ingresos y productividades obtenidas en términos comparativos, como de las limitaciones de recursos físicos para el desarrollo de dichas actividades.

## 1.5. LEHIAKORTASUNA ETA GLOBALIZAZIOA

Gipuzkoan izandako hazkunde ekonomikoa oinarrituta dago lehiakortasunaren hobekuntzan eta kanporanzko irekitasunean, globalizazio gero eta handiagoa duen ekonomi ingurunearen barruan. Irekitzeko joera hori areagotu egin da azken hamarkadan.

Lehiakortasunaren hobekuntza zuzenean lotuta dago produktibitate errealaren igoerarekin, gaur egun laukoiztu egiten baitu duela berrogeita hamar urtekoa, eta 1986koa baino bi heren handiagoa baita.

Europar Batasuneko partaide bihurtu aurreko urteetako ekonomiaren hazkunde-hasiera sendotu egin zen erakunde horretan sartu eta gero, industri birmoldaketaren prozesu baten ondoren eta, geroago, 1990eko hamarkadaren hasieran, atzeraldia gertatu eta gero. Orduan, Gipuzkoako ekonomia europar merkatuaren dinamikan sartu zen, eta ekonomia- zein enpresa-fluxuak nazioarteko bilakatu ziren orokorrean.

Produktibitatearen hobekuntzarekin batera enpresaberrikuntza gertatu zen. Berrikuntza era nabarmenean eta bizkortasunez handitu da azken hamarkadetan. Horrela bada, I+G motako jarduerak nahiz enpresa-berrikuntza eta horiek oinarri produktibora eta beraz, azken buruan, merkatura igarotzea abiagune izan dira Gipuzkoako ekonomian lehiakortasuna hobetzeko eta aberastasuna sortzeko.

Horrekin batera, gipuzkoar enpresen lehiakortasuna ere hobetu da eta enpresak globalizazio-prozesura egokitu dira, eta hori begien bistakoa da kanpoko hartu-emanak aztertzen baldin baditugu.

Hortaz, Gipuzkoa Europar Batasunean sartu zen kanpoko saldo positiboa zuela, eta saldo hori negatibo bilakatu zen sartu eta ondorengo urteetan. Hala ere, 1990eko hamarkadaren erdian, Gipuzkoako kanpomerkataritzaren estaldura-tasa positibo bilakatu zen argi eta garbi, eta gaur egun % 153ra iristen da.

Bilakaera horretan, Batasuneko kide diren herrialdeek kanpo-salmentetan egindako ekarpena erabakigarria izan da, eta egonkor mantentzen da, esportazio guztien bi heren inguru.

## 1.5. LA COMPETITIVIDAD Y LA GLOBALIZACIÓN

El crecimiento económico guipuzcoano se ha sustentado en la mejora de la competitividad y en la apertura exterior, en un marco económico de creciente globalización, amplificada en la última década.

La mejora competitiva se relaciona directamente con el aumento de la productividad real, que en la actualidad cuadriplica la de hace cincuenta años y es dos tercios superior a la de 1986.

El despegue económico en los años previos a la incorporación europea, se consolida a partir de la misma, tras atravesar un proceso de reconversión industrial y una recesión posterior a inicios de la década de los 90. Y se produce la integración de la economía guipuzcoana en la dinámica del mercado europeo y de la internacionalización generalizada de los flujos económicos y empresariales.

La mejora de la productividad se acompaña de la innovación empresarial, que ha aumentado significativa y aceleradamente en las últimas décadas. Así, las actividades de I+D y la innovación empresarial y su traslación a la base productiva y, en definitiva al mercado, se sitúa en el origen de la mejora de la competitividad y de la generación de riqueza de la economía guipuzcoana.

Junto a ello, la mejora de la competitividad de las empresas guipuzcoanas y su adecuación al proceso de globalización es palpable si se observan los intercambios con el exterior.

Así, Gipuzkoa se incorpora a la Unión con un saldo exterior positivo, que se torna negativo en los años posteriores a la incorporación. Pero a partir de mediados de los 90 la tasa de cobertura del comercio exterior guipuzcoano se torna claramente positiva, llegando en la actualidad al 153%.

En esta evolución la aportación de los países miembros de la Unión a las ventas exteriores es determinante, permaneciendo estable en torno a dos terceras partes de las exportaciones totales.

## 1.6. PERTSONAK ETA JARDUERA EKONOMIKOA

1957. urtean, Gipuzkoako enpleguan 186 mila pertsona zenbatzen ziren. Gipuzkoako ekonomian ondorengo hamarkadetan gertatu zen industrializazio handiak okupazioaren gorakada eragin zuen, 1970eko hamarkadaren erdira arte. Orduan, joeraren aldaketa gertatu zen. Hurrengo hamarkadan, bost enplegutatik ia bat desagertu zen.

1986an Europar Batasunean sartzeak inflexio-puntu bat eragin zuen: Europako partaide izateak berekin ekarri zuen jarduera berreraikitzeko eta enplegua berriz eratzeko aukera. Gaur egun, okupazioa, kopuruetan, 316 mila pertsonatan zenbatesten da. Hau da, Europar Batasunean sartu ginenetik, 100 mila pertsona baino gehiago sartu dira lan-merkatuan enplegatu gisa eta, horrela, Gipuzkoako biztanleen ongizateari eusten dion oinarria eratu dute.

Azken urteotako enpleguak izan duen hazkunde handiaren ondorioz, biztanleriaren ia erdiak okupazio ordaindua du, nahiz eta adinez zaharragoak diren biztanleen kopurua handitu eta prestakuntza akademikoaren aldia luzeagoa izan.

Luzatze horren emaitza gisa, biztanleria aktiboak duen prestakuntzaren hobekuntza oso nabarmena izan da azken berrogeita hamar urteetan, eta bereziki intentsua azken hogei urteetan. Gaur egun, lanean ari diren hiru pertsonatatik ia batek goi-mailako ikasketak ditu.

Enplegurik gehien zerbitzuen jarduеretan sortu da. Horrela bada, Europar Batasunean sartu ginen unean, Gipuzkoako biztanleen erdiek zerbitzuetan lan egiten zuten, eta gaur egun, okupatuta dauden hiru pertsonatatik ia bi dira zerbitzuetan lan egiten dutenak. Nabarmentzekoa da enplegua esparru hauetan igo izana: merkataritzan, enpresei emandako zerbitzuetan, hezkuntzan, osasungintzan, ostalaritzan, administrazio publikoan eta garraioan.

Langabeziari dagokionez, 1970eko hamarkadaren erdira arte oso murritza zen. 1975etik 1986ra bitartean, langabezia izugarri handitu zen. Berez, Europar Batasuneko kide bihurtu ginenean, lan egin nahi zuten bost pertsonatatik batek ez zuen okupaziorik, eta proportzio hori handiagoa zen biztanle gazteenen artean eta emakumeen artean.

EBko kide egin eta hurrengo hamarkadan, langabezia-tasa oso altu mantendu zen, eta murrizketa handia izan zuen 1996tik aurrera. 2006. urtean tasa oso txikia izan zen.

## 1.6. LAS PERSONAS Y LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

En 1957 el empleo guipuzcoano se cifraba en 186 miles de personas. La fuerte industrialización de la economía guipuzcoana en las décadas posteriores origina un fortísimo avance de la ocupación hasta mediados de los años 70, momento en el que se registra un cambio de tendencia. Durante la década posterior casi uno de cada cinco empleos desaparece.

La incorporación europea en 1986 marca un punto de inflexión: la integración en Europa representó la oportunidad para la reconstrucción de la actividad y la recomposición del empleo. En la actualidad la ocupación se estima en 316 miles de personas. Es decir, desde la incorporación europea más de 100 mil personas se han incorporado como empleados al mercado de trabajo, constituyendo la base que soporta el bienestar de la población guipuzcoana.

El fuerte crecimiento del empleo de los últimos años ha originado que casi la mitad de la población disponga de una ocupación remunerada, a pesar del incremento de la población de más edad y de la prolongación del periodo de formación académica.

Consecuencia de esta prolongación, la mejora de la formación de la población activa ha sido muy relevante en los últimos cincuenta años y especialmente intensa en los últimos veinte años. En la actualidad cerca de una de cada tres personas ocupadas cuenta con estudios con estudios superiores.

La mayor generación de empleo se ha experimentado en las actividades de servicios. Así, en el momento de la incorporación a la Unión, la mitad de la población guipuzcoana trabajaba en los servicios, alcanzando en la actualidad a casi dos de cada tres personas ocupadas. Destaca el aumento del empleo en los sectores de comercio, servicios a las empresas, educación, sanidad, hostelería, administración pública y transporte.

Por lo que se refiere al desempleo, hasta mediados de la década de los 70 era muy reducido. A partir de 1975 y hasta 1986, la incidencia del desempleo se “dispara”. De hecho, en el momento de la incorporación una de cada cinco personas que desea trabajar, carece de ocupación, proporción que aumenta entre la población más joven y entre las mujeres.

En la década posterior a la incorporación la tasa de paro se mantiene a niveles muy elevados, para reducirse drásticamente a partir de 1996 y alcanzando en 2006 una tasa muy reducida.

## 1.7. LURRALDEA ETA MUGIKORTASUNA

Azken berrogeita hamar urteetan, Gipuzkoako biztanleriaren hazkundea era aski homogeneoan banatu da lurraldean. Gipuzkoako antolaketa oinarritu da, hain zuzen ere, biztanleriaren banaketak lurraldean duen orekan. Hala ere, biztanleak itsasertzean finkatzeko joera pixkanaka nagusitzen ari da.

Beste alde batetik, biztanleak Gipuzkoako geografia osoan mugitzen dira, eta mugikortasun hori era ikusgarrian handitu da azken hogeita hamar urteetan, gizarte gero eta konplexuago eta aberatsagoaren bilakaerarekin bat. Erreferentziazko adierazle gisa, nabarmendu behar dugu azken berrogeita hamar urteetan hamahirurekin biderkatu dela Gipuzkoako biztanleen ibilgailu partikularren kopurua.

Era berean, Gipuzkoa igarotzeko espazioa eta loturagunea da kontinenteari dagokionez eta, halaber, Mesetan sartzeko atea. Errealitate geografiko horretan, salgaien garraioak, neurri handian errepidez egiten denak, garrantzi handia hartu du, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Gipuzkoako komunikazio-ardatz nagusietan, ibilgailuen trafikoa hirukoiztu egin da azkeneko hogei urteetan. Trafikoaren urteko hazkunde metatua Barne Produktu Gordinarena baino askoz ere handiagoa da, eta biztanleria egonkorra da.

Produkzio-jardueraren globalizazioa gero eta handiagoa zen unean Europar Batasunean sartzeak berekin ekarri zuen Gipuzkoako lurraldeko errepideetan trafikoa askoz ere handiagoa izatea.

Beste alde batetik, komunikazioaren alorrean giltza diren bi azpiegitura –Pasaiako portua eta Hondarribiko aireportua– Gipuzkoako ekonomiarentzat zer garrantzitsuak diren, eta ekonomia zein neurritan sustatu duten nabarmendu behar dugu; gainera, azken urteetan dinamismoa handia erakutsi dute.

## 1.7. EL TERRITORIO Y LA MOVILIDAD

El incremento de la población guipuzcoana en los últimos cincuenta años, se ha distribuido de forma bastante homogénea a lo largo del territorio. Así, la vertebración de Gipuzkoa se ha sustentado, precisamente, en el equilibrio de la distribución territorial de su población, aunque se observa una paulatina tendencia hacia la zona costera.

Junto a ello, la movilidad de la población a lo largo de la geografía guipuzcoana crece de forma espectacular en los últimos treinta años, de acuerdo con la evolución de la sociedad cada vez más compleja y más rica. Como indicador de referencia cabe destacar que en los últimos cincuenta años se multiplica por trece el número de automóviles particulares de la población guipuzcoana.

Asimismo, Gipuzkoa es un espacio de tránsito y punto de conexión con el continente y la entrada a la Meseta, realidad geográfica en el que la actividad del transporte de mercancías, en gran medida por carretera, adquiere una gran relevancia económica, social y ambiental.

El tráfico de vehículos por los principales ejes de comunicación guipuzcoanos se ha triplicado en los últimos veinte años, con un crecimiento acumulativo anual muy superior al del PIB y con una población estabilizada.

La incorporación a la Unión Europea, en un contexto de creciente globalización de la actividad productiva, ha impulsado asimismo el fuerte aumento del tráfico por carretera en el territorio guipuzcoano.

Por otra parte, destaca la relevancia y el impulso para la economía guipuzcoana de dos infraestructuras clave de comunicaciones, el puerto de Pasajes y el aeropuerto de Hondarribia, con un apreciable dinamismo en los últimos años.

## 1.8. BIZI-KALITATEA

Gipuzkoako biztanleak, oro har, pozik daude duten bizi-mailarekin. Maila horren adierazle gisa adierazi behar dugu biztanleriaren proportzio handiak jabetzako etxebizitza, ibilgailua eta Interneterako sarbidea dituela, oporrak etxetik kanpo egiten dituela eta aurreztu egiten duela.

Historiaren ikuspegitik, etxeetan egiten den kontsumoak hazkunde geldiezina erakusten digu, bizi izan dugun ekonomi hazkundearekin bat, diru-sarreren gorakada handiak bultzatuta. Horrela bada, biztanle bakoitzeko errenta erreala seikoiztu egin da azkeneko berrogeita hamar urteetan, eta bikoiztu azken hogei urteetan, Europar Batasunean sartu ginenetik.

Errentaren eta kontsumoaren igoerarekin batera, horien osaeran aldaketa sakona hauteman daiteke, produktuen kontsumoa murriztu egin baita portzentajeetan, eta zerbitzuen eta etxebizitzaren kontsumoa gehitu.

Era berean, finantza-erakundeetan gordetako aurrezkiak nabarmen gehitu dira azken hamarkadetan eta, horrela, hogeirekin biderkatu dira azken hiru hamarkadetan, moneta-unitate korronteetan. Bilakaera horrek Gipuzkoako biztanleen hazkunde ekonomikoa islatzen du: herritarrek gordailua aukeratzen baitute aurrezteko modu gisa, beste aukera batzuekin osatuta –inbertsio-funtsak, pentsio-planak edo burtsan inbertitzea–.

Beste alde batetik, etxebizitza kopuruak gorakada handia izan du. 1957. urtetik hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdiraino nagusitu egin zen bai biztanleria hazteak (immigrazioaren osagarri handia duela) baita biztanleriaren errentak hazteak sorrarazi zuten efektua.

1986. urtetik aurrera, pixkanaka, biztanleriaren geldialdia gertatu zen eta behar berriak sortzen hasi ziren, familien tamaina murriztu zelako eta, batez ere, etxe berean bizi ziren familien kopurua ere murriztu zelako.

Berez, 1981ez geroztik, etxebizitza kopurua % 30 handitu da, eta gaur egun 315.000 unitatetik gorakoa da kopurua.

Ongizate-ingurune horren barruan sartu behar ditugu, hala ere, pobretasun-arriskuko egoerak, hau da: hainbat pertsonek dituzten sarrera ekonomikoak potentzialki aski ez izatea oinarrizko premiei erantzun ahal izateko.

Horrela bada, hogeita bost etxetatik batean eta berrogeita hamar pertsonatatik bat, gutxi gorabehera, daude egoera horretan. Hortaz, hazkunde ekonomi-

## 1.8. LA CALIDAD DE VIDA

La población guipuzcoana está en general satisfecha con el nivel de vida que disfruta. Como indicador del mismo, una proporción importante de la misma cuenta con vivienda propia, vehículo, acceso a Internet, disfruta de vacaciones fuera del hogar y ahorra.

Desde la visión histórica, el consumo de los hogares muestra un crecimiento imparable y acorde con la expansión económica vivida, impulsado por el fortísimo aumento de los ingresos. Así, la renta real por habitante se sextuplica en los últimos cincuenta años y se duplica en los últimos veinte años, desde la integración en la Unión.

Junto con el aumento de la renta y del consumo se registra un profundo cambio en su composición, reduciéndose porcentualmente el consumo de productos en favor de los servicios y de la vivienda.

Asimismo, el ahorro depositado en las entidades financieras aumenta fuertemente en las últimas décadas, multiplicándose por veinte en las tres últimas décadas en unidades monetarias corrientes. Esta evolución refleja la expansión económica de la población guipuzcoana que recurre al depósito como forma de ahorro, que se ha venido completando con otras opciones como los fondos de inversión, los planes de pensiones o la inversión en Bolsa.

Por otra parte, el número de viviendas ha crecido de forma importante. Desde 1957 y hasta mediados de los años setenta prevalece el efecto derivado del incremento de la población, con especial importancia del componente inmigrante, y de sus rentas.

A partir de 1986 se produce el estancamiento progresivo de la población y comienzan a gestarse los argumentos de las nuevas necesidades, derivados de la disminución del tamaño de las familias y, sobre todo, el número de familias que reside en un mismo hogar.

De hecho, desde 1981 el parque de viviendas ha aumentado en un 30% y en la actualidad supera las 315.000 unidades.

Este escenario de bienestar económico no es ajeno a la existencia de situaciones de riesgo de pobreza, es decir, con una disponibilidad de ingresos económicos potencialmente insuficientes para hacer frente a la cobertura de las necesidades más elementales.

Así, uno de cada veinticinco hogares y una de cada cincuenta personas, aproximadamente, se encuentran en dicha situación. Por tanto, a pesar de la fuerte expansión económica y del importante avance de la renta per cápita se perciben asimismo, aunque con

koa handia izan arren, eta biztanle bakoitzeko errentaren igoera handia bada ere, ezberdintasun sozialak egon badaudela hauteman daiteke, nahiz eta beste lurralde batzuetan baino eragin txikiagoa izan.

Azkenik, eta halaber bizi-kalitatearekin lotuta, aipatu behar dugu, besteak beste, aurrerapen handia egin dela euskararen ezaguera- eta erabilera-mailan, eta informazioaren gizartea gero eta sakonago sartu dela Gipuzkoako gizartean.

menor incidencia que en otros ámbitos territoriales, la existencia de desigualdades sociales.

Finalmente y, asimismo relacionado con la calidad de vida, entre otros aspectos, debe mencionarse el avance registrado en el conocimiento y uso del euskera así como en la incorporación de la sociedad guipuzcoana a la sociedad de la información.

# 2

# DEMOGRAFIA
# LA DEMOGRAFÍA



## 2. DEMOGRAFIA

### 2.1. BIZTANLERIA

1957. urtean, Europar Batasuna eratu zen urtean alegia, 440.000 besterik ez ziren Gipuzkoan bizi ziren pertsonak. Gaur egun, berrogeita hamar urte geroago, biztanleak 679.000 izatera iritsi dira. Hau da, % 55 gehitu da biztanleria.

Biztanleria etengabe eta bizkortasunez hazi zen joan den mende osoan, 1980ko hamarkadaren hasiera arte. Aldi horretan, historian izandako mailarik gorenera iritsi zen, ia 700.000 biztanle izatera iritsita.

Orduz geroztik, biztanleen kopuruak egonkortzeko joera du, eta mende honetan igarotako urteetan igoera minimoa izan da.

Beraz, Europar Batasunean sartu ginenetik, lurraldeko biztanle kopurua egonkor mantendu da, gorabehera txiki batzuekin.

1980ko hamarkadan hasi zen joera-aldaketa handia hainbat alderdi bateratzearen ondorio izan da, hala nola: jaiotza-tasan izandako murrizketa handia, heriotza-tasaren hobekuntza eta migrazio-mugimenduen joera aldatzea.

## 2. LA DEMOGRAFÍA

### 2.1. LA POBLACIÓN

En 1957, año de constitución de la Unión Europea, las personas residentes en Gipuzkoa eran apenas 440.000. En la actualidad, cincuenta años después, alcanza la cifra de 679.000, es decir, han aumentado el 55%.

La población crece de manera continuada y acelerada a lo largo del pasado siglo hasta inicios de la década de los 80, periodo en el que alcanza su máximo histórico, ligeramente por debajo de las 700.000 personas.

Desde dicha época el número de habitantes tiende a estabilizarse, con un mínimo incremento en los años transcurridos del presente siglo.

Por tanto, desde la integración europea el número de habitantes del territorio se ha mantenido estable, con ligeras oscilaciones.

El fuerte cambio de tendencia experimentado a partir de la década de los 80 se deriva de la combinación de diversos factores tales como la fuerte reducción de la tasa de natalidad y la mejora de la tasa de mortalidad y el cambio de signo de los movimientos migratorios.

**Biztanleria**
**Población**

**Pertsonen kopurua milakoetan** / Miles de personas




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 2.2. ADINA

Gipuzkoako biztanleen batez besteko adina era nabarmenean igo da azken berrogeita hamar urteetan. 1960. urtean, 30 urte ingurukoa zen; 2006an, 42 urte ingurukoa. Bi aldietan handixeagoa da emakumeen kopurua, guztiaren % 51, alegia.

1960. urtean, 5 urtetik beherako pertsonak hamabi bider gehiago ziren 80 urte eta gehiago zituzten pertsonak baino. 2006. urtean, aldiz, bien kopurua ia bera izan da.

Gipuzkoako biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela ikus daiteke, halaber, 64 urtetik gorako biztanleen portzentajean, 1960. urtean % 7 baitzen, 1986an % 11, eta 2006. urtean % 18.

Hortaz, Europar Batasuneko kide bihurtu ginenez geroztik, bizkortasun handiz handitu da adineko pertsonen kopurua biztanleria osoaren barruan.

Igoera hori nabarmenagoa da 80 urteko eta hortik gorako biztanleen artean, 1960. urtean biztanleria osoaren % 1 baitziren, eta 2006an % 5. Era berean, emakume gehiago dago horien artean (adin talde horretako hamar pertsonatatik zazpi emakumeak dira).

## 2.2. LA EDAD

La edad media de la población guipuzcoana ha aumentado fuertemente en los últimos cincuenta años. En 1960 era de unos 30 años, en 2006 de unos 42 años. En ambos periodos es ligeramente mayor el número de mujeres, en torno al 51% del total.

En el primero de dichos años las personas menores de 5 años multiplicaban por doce a las de 80 y más. En el último año mencionado la cifra era prácticamente la misma.

El paulatino envejecimiento de la población guipuzcoana se observa asimismo en el porcentaje de población mayor de 64 años, que era del 7% en 1960, el 11% en 1986 y el 18% en 2006.

Por tanto, desde la fecha de la incorporación a la Unión Europea se ha acelerado intensamente la participación de las personas mayores en la población total.

El aumento es más evidente entre la población de 80 y más años que en 1960 apenas representaba el 1% de la población total, alcanzando el 5% en el último año, destacando la presencia femenina (siete de cada diez personas de este grupo de edad son mujeres).

**65 urteko eta hortik gorako biztanleak**
**Población de 65 y más años**

**Guztiaren %** / % sobre el total




**Iturria**/Fuente**: Estatistika Institutu Nazionala (INE) eta Eustat** / INE y Eustat

## 2.3. BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA

1986tik 2006ra bitartean biztanlerian aldaketa txikia gertatu arren, adinen araberako osaera nabarmen aldatu da.

2006. urtean, haurrek eta gazteek (19 urte arte) 1986ko haur eta gazteen kopuruaren erdia osatu zuten, eta horren ondorioa da, adibidez, hezkuntzaren eskaintzan izandako eragina.

Beste alde batetik, 20 eta 29 urte bitartekoen taldean kopurua txikiagoa da 1986ko talde berean baino, zehazki hogeita hamar mila lagun gutxiago baitira gaur egun, eta horren ondorio nabarmena da, adibidez, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen kopurua txikiagoa izatea.

Hogeita hamar urteko atalasetik gora, argi ikus daiteke adin taldeak handiagoak direla 2006an 1986an baino.

Bilakaera horrek gizartearen eta ekonomiaren egoeran izandako eragina, bizimoduan izandako aldaketek areagotua, guztiz agerikoa da, nola adin handiagoarekin lotuta gizarte- eta osasun-arloko arretaren beharrak handiagoak direlako, hala gero eta helduagoa den biztanleria aktiboa ordezkatzeko eta bere prestakuntza egokitzeko beharra ere handiagoa delako.

## 2.3. LA PIRÁMIDE DE POBLACIÓN

Aunque entre 1986 y 2006 la población varía poco, se modifica profundamente su composición por edades.

Los niños y jóvenes (hasta 19 años) son en 2006 la mitad de los que eran en 1986, con el consiguiente impacto en la oferta educativa, por ejemplo.

Por otra parte, el grupo de 20 a 29 años es inferior al de 1986 en treinta mil personas, con el evidente recorte en los efectivos que se incorporan al mercado laboral, por ejemplo

A partir del umbral de los treinta años, los grupos de edad son sensiblemente más numerosos en 2006 que en 1986.

La incidencia de dicha evolución en la situación social y económica, amplificada por los cambios en el modo de vida es muy evidente, tanto por el incremento de necesidades de atención social y sanitaria asociada a la edad, como a la necesidad de recambio y adecuación formativa de la población activa, cada vez más madura.

**Biztanleriaren piramidea**
**Pirámide de población**

**Pertsonen kopurua milakoetan** / Miles de personas




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

## 2.4. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK

Azken urteotan, saldo begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) zertxobait positiboa izan da. Nolanahi ere, 1970eko hamarkadaren bukaera arte, jaiotzen kopurua 10.000tik gorakoa zen, eta hori baino askoz ere handiagoa zen kopurua 1960ko hamarkadaren erdian.

Heriotzen kopurua egonkor, eta 5.000 pertsonatik behera, mantentzen zenez, hazkunde begetatiboa –hau da, migrazioak kontuan hartu gabe–, oso handia zen.

Joera hori, motelduta bada ere, mantendu egin zen hurrengo urteetan, 1990eko hamarkadaren hasiera arte, orduan heriotzen kopurua jaiotzen kopurua baino handiagoa izan baitzen. Hazkunde begetatiboa, beraz, negatiboa izan zen, eta hala mantendu zen mendea bukatu arte.

Mende honetan, jaiotzen gorakada motelak hazkunde begetatibo positiboa sortu du berriro.

Europar Batasunean sartu baino lehenagoko urteetan, jaiotzen kopurua izugarri murriztu zen, eta heriotzetan gorakada txikia gertatu zen. Era berean, 1975etik 2006ra arte, adin emankorreko emakume bakoitzeko seme-alaben kopurua erdiraino jaitsi zen, hots 2,7tik 1,4ra –nahiz eta hamarkada honetan igoera arina gertatu den–, eta amen batez besteko adina igo egin da, 29 urtetik 32ra.

## 2.4. LOS NACIMIENTOS Y LAS DEFUNCIONES

En los últimos años el saldo vegetativo (diferencia entre nacimientos y defunciones) ha sido ligeramente positivo. No obstante, hasta finales de la década de los años 70 el número de nacimientos superaba la cifra de 10.000, rebasando ampliamente dicha cifra a mediados de la década de los años 60.

Como la cifra de defunciones se mantenía estable, y por debajo de la cifra de 5.000 personas, el crecimiento vegetativo (es decir, sin considerar las migraciones) era relevante.

Esta tendencia, aunque atenuada, se mantiene en los años posteriores, hasta iniciarse la década de los 90 con un número de defunciones superior al de nacimientos, es decir, con un crecimiento vegetativo ligeramente negativo, el cual se mantiene hasta el cambio de siglo.

En el presente siglo el ligero repunte de los nacimientos ha generado de nuevo un crecimiento vegetativo levemente positivo.

A lo largo de los años previos a la incorporación europea el número de nacimientos se reduce drásticamente, en tanto que las defunciones aumentan ligeramente. Asimismo, desde 1975 hasta 2006 el número de hijos por mujer en edad fértil se reduce a la mitad, de 2,7 a 1,4, a pesar de recuperarse ligeramente en la presente década y la edad media a la maternidad aumenta de 29 a 32 años.

**Jaiotzak eta heriotzak**
**Nacimientos y Defunciones**

**Pertsonen kopurua milakoetan***/Miles de personas*




*** Saldo begetatiboa parentesien artean eman dugu** / Saldo vegetativo entre paréntesis
**Iturria**/Fuente: **INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 2.5. MIGRAZIOAK

1957. urtean Europar Batasuna eratu zenetik 1970eko hamarkadaren erdira arte, immigrante ugari iritsi ziren Gipuzkoako Lurraldera. Izan ere, 1960ko hamarkadaren erdian, milako 10etik gorako tasa gordinak egon ziren.

1970eko hamarkadaren bigarren erdian, migrazio-saldoak joera aldatu zuen, eta Europar Batasuneko kide bihurtu ginenean negatiboa zen, argi eta garbi. 1990eko hamarkadan aldatzen hasi zen, eta mendea aldatzearekin batera positibo bihurtu zen.

Europar Batasunean sartu baino lehenagoko aldiko immigranteak Estatu espainiarreko beste lurralde batzuetatik etorri ziren, bertan, eta garapen eskaseko ekonomiaren ondorioz, Gipuzkoan baino errenta-maila txikiagoak zeudelako.

1960. urtean, Gipuzkoako biztanleriaren % 29 beste probintzia batzuetan jaioa zen, eta portzentaje hori egonkor mantentzen zen 1986. urtean. Gaur egun, % 22ra jaitsi da kopurua.

Izan ere, gaur egun, Gipuzkoako biztanleen % 12 Gaztela eta Leon, Extremadura, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa erkidegoetan jaioa da. Beste alde batetik, % 6 nafar, bizkaitar eta arabar jatorrikoa da.

## 2.5. LAS MIGRACIONES

Desde la constitución de la Unión Europea en 1957 hasta mediados de la década de los años 70 la afluencia de población inmigrante al territorio guipuzcoano fue muy intensa, alcanzando tasas brutas superiores al 10 por mil a mediados de los años 60.

En la segunda mitad de los años 70 el saldo migratorio cambia de signo y en el momento de la integración en la Unión es claramente negativo, atenuándose en la década de los 90 para tornarse ligeramente positivo con el cambio de siglo.

La inmigración en la etapa previa a la incorporación proviene de otras zonas del Estado Español, con niveles de renta muy inferiores a los de Gipuzkoa, como consecuencia de una economía escasamente desarrollada.

En 1960 el 29% de la población guipuzcoana había nacido en otras provincias, porcentaje que se mantiene estable en 1986, y retrocediendo al 22% en la actualidad.

De hecho en la actualidad el 12% de la población guipuzcoana ha nacido en las comunidades autónomas de Castilla-León, Extremadura, Andalucía y Castilla-La Mancha. Asimismo el 6% es originaria de Navarra, Bizkaia y Alava.

**Migrazio-tasa garbia***
**Tasa de migración neta***

‰




*** : Migrazio-saldoa mila biztanleko** / Saldo migratorio por mil habitantes
**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

# 3

# GIZARTE ALDAKETA
# EL CAMBIO SOCIAL



# 3. GIZARTE ALDAKETA

## 3.1. ERRENTA

Azken urteetan, biztanle bakoitzeko errenta errealak hazkunde handia izan du. Europar Batasuneko partaide garenetik, birekin biderkatu da urteko errenta, eta azkeneko berrogeita hamar urteetan ia laurekin. Pertsona bakoitzeko aberastasuna handitzea azkeneko hogeita hamar urteetan sortutako produkzioarekiko paraleloan joan da, biztanleriaren egonkortzea kontuan izanda.

Aldagai hori oso garrantzitsua da, eta Europar Batasunean sartzeak berekin ekarri dituen ondorio eraginkorrak argitzen ditu berez; era berean, beste eragin batzuei lotuta dagoenean, Gipuzkoako herritarren ongizate ekonomikoa ere argitzen du.

Izan ere, azken hamarkadetako bilakaera ekonomiko eta sozialean garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk ere badaude, hala nola, enpresetan izan den aldaketa berritzailea, industri alorretako krisia lehiakortasunez gainditu izana, trebakuntza enpleguan eta kudeaketaren hobekuntza, edo emakumeak lanmunduan sartzea.

Beste alde batetik, sektore publikoaren eragin handia nabarmendu behar dugu, Autonomi Estatutuaren, eskura dauden baliabideen eta autonomiak era asoziatuan esku hartzeko duen gaitasunaren ingurunean, bai gizartearekin zerikusi handiagoa duten esparruetan –hezkuntza eta osasuna–, bai jarduera ekonomikoen esparruan –berrikuntza eta eraldatze ekonomikoaren eta lehiakortasunaren sustapena–.

# 3. EL CAMBIO SOCIAL

## 3.1. LA RENTA

En los últimos años la renta real por habitante ha experimentado un fortísimo crecimiento. Desde la incorporación europea la renta anual se ha multiplicado por dos y en los últimos cincuenta años casi por cuatro. El aumento de la riqueza por persona ha sido paralelo al de la producción generada en los últimos treinta años, dada la estabilización de la población.

Esta es una variable clave y explicativa por sí sola de los poderosos efectos derivados de la integración en la Unión Europea, y asociada a otros efectos, sobre el bienestar económico de la población guipuzcoana.

Así, existen otros factores asimismo relevantes del devenir económico y social de las últimas décadas, como el cambio innovador en las empresas, la superación competitiva de la crisis de sectores industriales, la cualificación del empleo y la mejora de la gestión o la integración de las mujeres en la actividad laboral.

Asimismo debe destacarse la gran incidencia del sector público, en el marco del Estatuto de Autonomía y de los recursos disponibles y de su capacidad de intervención asociada, tanto en los ámbitos más sociales (la educación y la sanidad) como en la renovación e impulso de la transformación económica y competitiva de las actividades económicas.

**Barne-produktu gordina (BPG) biztanleko***
PIB por habitante*

**1986. urtea = oinarria 100** / Año 1986=base 100




*** Balio errealetan** / En términos reales
**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 3.2. HEZKUNTZA

1960. urtean, biztanleriaren %5ak soilik gainditzen zituen lehen mailako ikasketen hezkuntza-maila, hau da, maila ertaineko edo goi-mailako ikasketak eginak zituen; eta ez zen % 1era iristen goi-mailako ikasketak egin zituztenen portzentajea. 1986an, aldiz, lehen mailako ikasketak gainditzen zituenen portzentajea biztanleriaren % 44ra iristen zen.

Eta Europar Batasuneko partaide garenez geroz, azken hogei urteetan alegia, biztanleriaren hezkuntzan izandako hobekuntza ere nabarmena da. 2006. urtean, Gipuzkoan bizi ziren hiru pertsonatatik bik gainditzen zuten lehen mailako ikasketen hezkuntza-maila.

Beste alde batetik, goi-mailako ikasketei dagokienez, hobekuntza intentsuagoa izan da. Horrela bada, bost pertsonatatik batek goi-mailako ikasketak egin ditu gaur egun eta, aldiz, hogei urte lehenago, hamar pertsonatatik batek bakarrik zituen goi-mailako ikasketak.

Halaber, hezkuntzan izandako aldaketa biztanleria aktiboan islatzen da, gaur egun lana duten hiru pertsonatatik ia batek egin baititu goi-mailako ikasketak.

Eta 20 eta 24 urte bitarteko biztanleei dagokienez, bost pertsonatatik lauk, gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzte.

## 3.2. LA EDUCACIÓN

En 1960 apenas el 5% de la población superaba el nivel educativo correspondiente a estudios primarios, es decir, había cursado estudios medios o superiores y no llegaba al 1% los que manifestaban haber realizado estudios superiores. En 1986 el porcentaje que superaba el nivel de estudios primarios ya alcanzaba al 44% de la población.

Y desde la incorporación, en los últimos veinte años, la mejora del nivel educativo de la población es asimismo palpable. En 2006 dos de cada tres residentes en Gipuzkoa supera el nivel educativo correspondiente a estudios primarios.

Y, adicionalmente, en el nivel de estudios superiores la mejora es más intensa. Así, una de cada cinco personas ha cursado estudios superiores, cuando veinte años la proporción era de una de cada diez.

El cambio educativo se refleja asimismo en la población activa, dado que en la actualidad casi una de cada tres personas ocupadas ha efectuado estudios superiores.

Y, por lo que se refiere a la población de 20 a 24 años, cuatro de cada cinco personas ha superado, como mínimo, el nivel de estudios secundarios.

### Goi-mailako ikasketak dituzten biztanleak
### Población con estudios superiores

**Guztiaren %** / % sobre el total




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 3.3. ALDAKETA DEMOGRAFIKOA

Aldaketa demografikoek errealitate sozial eta ekonomikoan duten eragina begien bistakoa da. Aldaketen artean hauek nabarmen ditzakegu: biztanleria zahartzea eta bizi-itxaropena handitzea, jaiotza-tasaren neurritasuna, beste kultur eredu batzuk dituzten pertsonen immigrazioa handitzea, eta gero eta helduagoa den biztanleria aktiboa ordezkatzeko beharra zein biztanleria horrek prestakuntza egokia izateko beharra.

Aldaketa horiekin batera, beste aldaketa azkar bat gertatzen ari da bizi-ereduetan, familia-eredu berriak, harremanak izateko era berriak eta gizarte-kapitala sortzeko era berriak ere agertu direlako.

Guztiaren gainetik, zahartzea erronka da gizarte osoarentzat, eta helburua bizitza zoriontsuaren urteak gehitzea. Horrela bada, adineko pertsona gehiago daude, baina baita gazte gutxiago ere, eta bitarteko adinen multzoa handitzen ari da. Hau da, gizarte osoaren beharrak aldatzen ari dira.

Gaur egun, Gipuzkoan bizi diren bost pertsonatatik ia bat iristen da 65 urte betetzera, eta hogei pertsonatatik bat 80 urte betetzera. Hala eta guztiz ere, argi dago adina berez ez dela pertsonengan mendekotasun-egoera sortzen duena. Baina, adineko pertsonei arreta eskaintzeko baliabideak eduki behar ditu gizarteak, pertsonak egoera horretara iritsiz gero.

Ildo horretan, osasunaren kulturak, helduarora iritsi baino lehenagoko urteetako zainketa eta arretak zahartzarora iristeko baldintza hobeak eskaintzen ari dira. Etapa horretan, bestalde, erabakigarria da gizarteak zahartzaroa espazio aktibo gisa onartzea.

## 3.3. EL CAMBIO DEMOGRÁFICO

La incidencia de los cambios demográficos en la realidad social y económica es muy evidente. Entre estos pueden destacarse el envejecimiento de la población y el aumento de la esperanza de vida, la moderación de la natalidad, el crecimiento de la inmigración con otras pautas culturales, así como las necesidades de recambio y adecuación formativa de la población activa, cada vez más madura.

Junto a estos cambios se está registrando un cambio acelerado en los estilos de vida, con nuevos modelos de familia y nuevas formas de relación y generación de capital social.

El envejecimiento es, ante todo, un reto para el conjunto de la sociedad, con el objetivo de incrementar el número de años de vida feliz. No se trata sólo de que haya más personas mayores, sino que hay muchos menos jóvenes y crece el segmento de edad intermedia. Es decir, cambian las necesidades del conjunto de la sociedad.

Casi una de cada cinco personas residentes en Gipuzkoa alcanza en la actualidad los 65 años y una de cada veinte los 80 años. No obstante, es evidente que la edad en sí misma no coloca a la persona en situación de dependencia. Pero, socialmente hay que contar con los recursos para atenderles si se diera la situación.

En este sentido, la cultura de la salud, el cuidado y la atención en las etapas previas a la madurez ya está propiciando una mejor condición de llegada a la vejez, en la que resulta determinante el reconocimiento social de la vejez como un espacio activo.

**80 urteko eta hortik gorako biztanleak**
**Población de 80 y más años**

**Guztiaren %** / % sobre el total




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 3.4. EMAKUMEAK ETA LAN JARDUERA

1960. urtean, enplegua zuten bost pertsonatatik bat soilik zen emakumea, eta Europar Batasunean sartu ginenean, hiru pertsonatatik emakume bat izatera iritsi zen portzentajea. Europar Batasuneko kide bihurtu ginenetik hogei urte igaro direnean, ordaindutako enpleguaren % 42 emakumeei dagokie, eta gorakada handia gertatzen ari da azken urteotan. Berez, emakumeek hartzen dute EBko kide garenetik sortu den enplegu garbiaren bi heren.

Ildo horretan, azken hogei urteetan Gipuzkoako lan-merkatuak izan duen berezitasunen bat nabarmendu behar izanez gero, emakumeak lan-merkatuan sartzea da, hain zuzen ere, aipatu behar duguna. Horrekin ez dugu adierazi nahi emakumeek lehenago lan egiten ez zutenik, baizik eta enplegua baztertu egiten zutela, familia-konpromisoak beren gain hartzen zituztenean.

Emakumeak lan-munduan sartzea lotuta dago emakumezkoen trebakuntzaren hobekuntzarekin. Hobekuntza horren adierazle gisa esan dezakegu 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 85ek bigarren mailako ikasketak dituela gutxienez. Portzentaje hori hamar puntu handiagoa da gizonezkoena baino.

Azken bi hamarkadetan, egoera egokia sortu da gizartean, behin emakumea lan-merkatuan sartu denean, utz ez dezan. Aldi horretan ere, familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateratzeko erronka sortu da.

## 3.4. LAS MUJERES Y LA ACTIVIDAD LABORAL

En 1960 apenas una de cada cinco personas empleadas era mujer y en el momento de la integración europea eran una de cada tres. A los veinte años de la integración el 42% del empleo remunerado corresponde a la población femenina, con un fuerte ritmo de avance en los últimos años. De hecho, dos terceras partes del empleo neto generado desde la incorporación lo ocupan mujeres.

Al respecto, si hay que destacar algún rasgo característico del mercado laboral guipuzcoano en estos veinte años es la incorporación de la mujer al mercado laboral. Esto no significa que no hubieran participado con anterioridad, sino que el empleo se abandonaba una vez que asumían los compromisos familiares.

Esta incorporación está asociada a la mejora de la formación femenina. Como indicador de la misma, el 85% de las mujeres de 20 a 24 años ha superado al menos los estudios secundarios. Este porcentaje es diez puntos superior al de los varones.

En estas dos décadas se genera el escenario social propicio para que, una vez incorporada la mujer al mercado laboral, no lo abandone. En este periodo se desarrolla el reto de la conciliación de la vida familiar y laboral.

**Ordaindutako enplegua duten emakumezkoak eta gizonezkoak**
**Las mujeres y los hombres con empleo remunerado**

**Pertsonen kopurua milakoetan** / Miles de personas




*** Bi kopuruen arteko ratioa parentesien artean eman dugu**
* Entre paréntesis el ratio entre ambas cantidades
**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 3.5. IMMIGRAZIOA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Alderdi bat nabarmendu behar dugu atal honetan, mende honetan kokatu behar dena, hain zuzen ere Gipuzkoan biztanle atzerritarrak egotea.

1960. urtean, atzerrian jaioak ziren eta Gipuzkoan bizi ziren biztanleen portzentajea biztanle guztien % 0,9koa zen. Portzentaje hori ez zen ia aldatu Europar Batasuneko partaide bihurtu ginen arte. Urte horretan, portzentajea % 1,3koa zen, eta hala mantendu zen mendea bukatu arte.

Hamarkada honen hasieraz geroz, biztanle atzerritar ugari etorri dira, eta etorrera areagotu egin da azken urteetan.

Berez, 2007. urte honen hasieran, biztanleria osoaren % 5etik gorakoa zen portzentajea, 37.000 lagunetik gertu, duela 20 urteko kopurua laukoiztu zela.

Nabarmentzekoa da Ekuador, Maroko, Kolonbia eta Errumaniatik iritsitako pertsonen etorrera. Atzerrian jaio den eta Gipuzkoan bizi den biztanleriaren heren bat lau herrialde horietan sortua da.

## 3.5. LA INMIGRACIÓN Y LA DIVERSIDAD CULTURAL

Un aspecto destacable y centrado en el presente siglo es la presencia en Gipuzkoa de población extranjera.

En 1960 la población nacida en el extranjero residente en Gipuzkoa representaba el 0,9% de la población total. Este porcentaje apenas varía hasta la fecha de la incorporación, cifrándose en el 1,3% en dicho año y se prolonga hasta el cambio de siglo.

A partir del inicio de la presente década la afluencia de población extranjera es intensa, acelerándose en los últimos años.

De hecho, a inicios de 2007 superan el 5% de la población total, acercándose a las 37.000 personas y cuadriplicando la cifra de hace 20 años.

Destaca el crecimiento de la presencia de personas provenientes de Ecuador, Marruecos, Colombia y Rumania. La tercera parte de la población nacida en el extranjero residente en Gipuzkoa proviene de estos cuatro países.

**Atzerrian jaiotako biztanleak**
**Población nacida en el extranjero**

**Guztiaren %** / % sobre el total




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

# 4

## EKONOMIA
## LA ECONOMÍA



# 4. EKONOMIA

## 4.1. ABERASTASUNA SORTZEA

Europar Batasunean sartu ginenetik igaro diren hogei urteotan, sortutako aberastasuna termino errealetan bikoiztu egin da.

Estatu espainiarra Europar Batasuneko eskubide osoko kide bihurtzea lagungarri izan zen jarduera ekonomikoa garatzeko ingurunea erabat alda zedin. Europar ingurune partekatu eta lehiakorrean izandako aldaketek –arauetan, merkataritza-harremanetan, enpresen arteko eta pertsonen arteko trukeetan, besteak beste– beren isla garbia dute sortutako aberastasunean.

Hala eta guztiz ere, Europar Batasuna 1957. urtean eratu zenetik 1986an gu partaide bihurtu ginen arte, gipuzkoar ekonomian ere igoera handia gertatu zen. Berez, Barne Produktu Gordina hirukoiztu egin zen 1975. urtean, nahiz eta arin jaitsi Europar Batasunean sartu baino lehenagoko hamarkadan.

Urteko hazkunde metatuari dagokionez, Gipuzkoako ekonomia % 3,6 aurreratu zen azken urteetan, eta tasa horren oso antzekoa izan zen Europar Batasuna eratu aurreko eta ondorengo urteetakoa.

Hala ere, historiaren ikuspegitik, 1957-1975 aldia dinamismo ekonomiko handiena izan zuena da, urteko hazkunde metatuaren tasa % 6,3koa izan baitzen.

# 4. LA ECONOMÍA

## 4.1. LA GENERACIÓN DE RIQUEZA

En los veinte años transcurridos desde la incorporación a la Unión Europea se ha duplicado la riqueza generada en términos reales.

La incorporación del Estado Español como miembro de pleno derecho de Unión Europea, contribuyó a un cambio radical de marco para el desarrollo de la actividad económica. Los cambios acontecidos en normativas, relaciones comerciales, intercambios entre las empresas y entre las personas, entre otros aspectos, en un contexto europeo compartido y competitivo, tienen un reflejo nítido en la riqueza generada.

No obstante, desde la constitución de la Unión en 1957 y hasta la incorporación en 1986, la economía guipuzcoana experimentó asimismo un fortísimo incremento. De hecho el PIB llega a triplicarse en 1975, para descender ligeramente en la década previa a la incorporación.

En términos de crecimiento acumulativo anual, la economía guipuzcoana avanzó el 3,6% a lo largo de los últimos años, tasa muy similar en los años previos (desde la constitución de la Unión) y posteriores a la misma.

No obstante, desde una perspectiva histórica, el periodo 1957-1975 es el de mayor dinamismo económico, con una tasa de crecimiento acumulativo anual del 6,3%.

**BPG**
**PIB**

**1986. urtea = oinarria 100** / Año 1986=base 100




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat**/ INE y Eustat

## 4.2. SEKTORE HANDIAK

Azkeneko berrogeita hamar urteetan, Gipuzkoako ekonomia oinarrituta egon da industria sendo eta berrituan eta hirugarren sektoreko jardueren garapen gero eta handiagoan. Era berean, Europar Batasunean sartu ginenez geroz, Gipuzkoa hazten ari da, bertako industri jarduera sendotzen eta berritzen ari da, eta zerbitzuen sektorea, aberastasuna sortzeko gero eta garrantzitsua dena, jarduera berriez indartzen ari da.

Zerbitzuen jardueren portzentajezko hazkundea garrantzitsua izan da Europar Batasuneko kide bihurtu eta ondorengo urteetan, eta egonkortu egin da azken hamarkadan, Gipuzkoako industriaren dinamismoaren ondorioz. Horrela bada, industri garapenak aurrerantz bultzatzen ditu produkzioari zerbitzuak eskaintzeko jarduerak eta enpresak, eta hirugarren sektoreko jarduera guztiak sustatu eta dinamizatzen ditu.

Beste alde batetik, ekonomiaren eta gizartearen dinamismoak eta biztanleriaren aberastasun handiagoak gero eta konplexu eta sofistikatuagoa den eskaera sortzen dute eta, beraz, ekonomia garatuak, ondasunez gain, zerbitzuen tarte gero eta zabalagoa ekoiztu behar du.

Ildo horretan, sendotu egin da pertsonei eskainitako zerbitzu publikoen zein pribatuen garapena –hala nola hezkuntza, osasungintza edo gizarte-ongizatea eskaintzeko zerbitzuak–, hauteman diren beharren arabera, eta gizarteak ongizate pertsonalaren, bizikalitatearen eta gizarte-kohesioaren behar gero eta handiagoei ematen dien erantzunaren arabera.

## 4.2. LOS GRANDES SECTORES

En los últimos cincuenta años la base económica guipuzcoana se ha sustentado en una sólida y renovada industria junto con un creciente desarrollo de actividades terciarias. Asimismo, desde la incorporación a la Unión, Gipuzkoa crece consolidando e innovando su actividad industrial y reforzando con nuevas actividades el sector de servicios, que adquiere una presencia cada vez mayor en la generación de riqueza.

El crecimiento porcentual de las actividades de servicios, relevante en los años posteriores a la incorporación, se ha estabilizado en la última década, como consecuencia del dinamismo industrial guipuzcoano. Así, el desarrollo industrial tracciona sobre las actividades de servicios a la producción y a las empresas, impulsando y dinamizando el conjunto de actividades terciarias.

Asimismo, el dinamismo económico y social y la mayor riqueza de la población se filtran hacia una demanda cada vez más compleja y sofisticada, por lo que una economía desarrollada debe producir, además de bienes, un rango creciente de servicios.

En este sentido, se asienta el desarrollo de los servicios a las personas, públicos y privados, como la educación, la sanidad o los servicios de bienestar social, acordes con las necesidades percibidas y la respuesta de la sociedad a unas crecientes necesidades de bienestar personal, calidad de vida y cohesión social.

**BPGren egitura**
**Estructura del PIB**




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 4.3. INDUSTRI OINARRIA

1986. urtean, Gipuzkoan sortutako aberastasunaren erdiak industri sektoreko enpresetan zuen jatorria. Parte-hartze hori bera, gorabehera arin batzuekin, erregistratu zen aurreko hogeita hamar urteetan.

Europar Batasuneko kide bihurtu baino lehenagoko hogeita hamar urteetan Gipuzkoan izandako hazkunde ekonomiko handia industri jardueran oinarritu zen; hala ere, aldi horren azken etapan, industria berregituratzeko eta birmoldatzeko prozesuak berekin ekarri zuen Barne Produktu Gordinean egindako ekarpena murriztea.

Azken hamarkadan, eta bereziki joan den mendeko azken urteetan, Gipuzkoako industriaren alorreko enpresen dinamismoari esker, industriak mantendu egin zuen, portzentajeetan, Barne Produktu Gordinean egindako ekarpena. Aipatutako dinamismoa berrikuntzan eta kanporanzko irekitasunean oinarrituta zegoen, bere lehiakortasun berrituaren euskarri gisa.

Gaur egun, industriaren alorreko produkzioaren bi heren metalezko mekanikaren oinarriari (hau da, metalezko fabrikazioa) eta garraioko makineria eta materialari dagozkie.

Beste alde batetik, industriaren indarra laguntzen ari da produkzio-sare osoa era erabakigarrian dinamizatzen, zerbitzutzat jotzen diren jardueren hazkundea bultzatzen ari baita (jarduera horien artean, enpresei eskainitako zerbitzuekin lotuta dauden jarduera guztien aurrerapen handia nabarmendu behar da).

## 4.3. LA BASE INDUSTRIAL

En 1986 la mitad de la riqueza generada en Gipuzkoa provenía de las empresas pertenecientes al sector industrial. Esta participación, con ligeras oscilaciones se registró asimismo en los treinta años precedentes.

Así, el intenso crecimiento económico guipuzcoano en la treintena previa a la integración se sustentó en el dinamismo de la actividad fabril, aunque en la última etapa de dicho periodo, el proceso de reestructuración y reconversión industrial implicó una reducción en su aportación al PIB.

En la última década, y especialmente en los últimos años del siglo pasado, el dinamismo de las empresas industriales guipuzcoanas, sustentada en la innovación y en la apertura exterior como bases de su renovada competitividad, origina que la industria mantenga su contribución al PIB en términos porcentuales.

En la actualidad dos terceras partes de la producción industrial corresponde a la base metalmecánica, integrada por la fabricación metálica, y de maquinaria y material de transporte.

Asimismo la pujanza industrial contribuye a dinamizar decisivamente el conjunto del tejido productivo, impulsando el crecimiento de actividades consideradas como de servicios, entre las que cabe destacar el fuerte avance del conjunto de actividades relacionadas con los servicios a empresas.

**Industria**
**La industria**

**BPGren %** / % del PIB




**Iturria**/Fuente**: BBVA eta Eustat** / BBVA y Eustat

## 4.4. ENPRESEI EMANDAKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATERAKO ZERBITZUAK

Aberastasunaren % 59 zerbitzu izendatzen diren jardueren multzo zabalean sortzen da. Jarduera horien artean aipatzekoak dira enpresei eskainitako zerbitzuen alorrak berriki erakutsi duen dinamismo handia, eta bizi-kalitaterako zerbitzuen ekarpena.

Ildo horretan, enpresei eskainitako zerbitzuak gero eta konplexuagoa den ingurune ekonomikoari emandako erantzuna dira. Eta ingurune hori gero eta konplexuagoa da, Gipuzkoako enpresak Europan osotasunez sartu zirenetik igarotako hogei urteetan enpresetan zein enpresa-jardueran aldaketa sakonak gertatu direlako.

Zerbitzu-sektorearen gune nagusia, bai enpleguaren sorrerari dagokionez, bai balio erantsiari dagokionez, “bizi-kalitaterako zerbitzuak” izenda ditzakegun zerbitzuen multzoak osatuta dago. Zerbitzu horien barruan, merkataritza, ostalaritza, hezkuntza, osasungintza eta administrazio publikoa daude.

Zerbitzu horiek, gaur egun, enpleguaren % 61eko ekarpena egiten dute zerbitzuen jardueretan. Azken hamarkadan, hala ere, murrizketa gertatu da ekarpenean, aurreko berrogei urteetan aurrerakada handia izan eta gero.

Hala eta guztiz ere, jarduera horiek gorakada handia izan dute azken hamarkadan okupazioaren kopuruei dagokienez, nahiz eta gorakada zerbitzu guztien multzoarena baino txikiagoa izan. Horrela bada, merkataritza-zerbitzuek azken hamarkadan izandako aurrerapena aipatu behar dugu, enpleguaren sorreran izandako igoera askoz ere handiagoa baita aurreko etapetan baino. Igoeraren oinarrian, Gipuzkoako biztanleriaren aberastasuna eta kontsumitzeko ahalmena aurki ditzakegu.

## 4.4. LOS SERVICIOS A LAS EMPRESAS Y PARA LA CALIDAD DE VIDA

El 59% de la riqueza se genera en el amplio conjunto de actividades denominadas de servicios. Entre las mismas destaca el fuerte dinamismo reciente del sector de servicios a las empresas y la aportación de los servicios para la calidad de vida.

En este sentido, los servicios a las empresas responden a un escenario económico de una complejidad creciente, dado que en los veinte años transcurridos desde la incorporación plena de las empresas guipuzcoanas a Europa se han producido cambios profundos en las empresas y en la actividad empresarial.

El principal núcleo del sector servicios, tanto por lo que se refiere a la generación de empleo como de valor añadido está constituido por el grupo de servicios que puede denominarse como servicios para la calidad de vida, que engloba los servicios comerciales, de hostelería y de enseñanza, sanidad y administración publica.

Estos servicios aportan en la actualidad el 61% del empleo en actividades de servicios, con un retroceso en su aportación en la última década, tras un fuerte avance en los cuarenta años precedentes.

No obstante, estas actividades han registrado asimismo un avance relevante en sus cifras de ocupación en la última década, aunque inferior al del conjunto de los servicios. En este sentido, puede destacarse el avance de los servicios comerciales en la última década, con un avance en la generación de empleo sensiblemente superior al de etapas precedentes, impulsado por el crecimiento de la riqueza de la población guipuzcoana y de su capacidad de consumo.

**Bizi-kalitaterako zerbitzuak**
**Los servicios para la calidad de vida**

**Zerbitzuetako enpleguaren %** / % del empleo en servicios




**Iturria**/Fuente**: Eustat**

## 4.5. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

Gipuzkoak azken hamarkadetan izandako garapen ekonomiko eta sozial handiak berekin izan du nekazaritza- eta arrantza-jarduerak murriztea. Murrizketa horren kausa izan dira diru-sarrera txikiagoak eta konparazioz lortutako produktibitateak urriagoak izatea alde batetik, eta jarduera horiek burutzeko baliabide fisikoak mugatu izana bestaldetik.

Prozesu hori ekonomia guztietan gertatzen da. Ekonomi garapenean eta ongizatean maila altuetara iritsi ahala, jarduera horien portzentajezko ekarpena murrizten da. Murrizketa hori are nabarmenagoa da oso txikia den eta hiritartze-maila handia duen lurralde batean, hala nola Gipuzkoan.

1957an, Europar Batasuna eratu zen urtean, lehen sektoreak sortutako aberastasunak hamarren bateko ekarpena egiten zion Gipuzkoako aberastasunari. Portzentaje hori etengabe jaitsi egin zen hurrengo hamarkadetan, harik eta azken urteetan % 1en inguruan egonkortu zen arte.

Horrela bada, Gipuzkoako lehen sektoreko produkzioa, gaur egun, eta eskura ditugun azken datuen arabera, era honetan bana daiteke, gutxi gorabehera: % 40 abeltzaintzan, % 30 arrantzan, % 20 nekazaritzan, eta % 10 basogintzan.

## 4.5. LA AGRICULTURA Y LA PESCA

El fuerte desarrollo económico y social de Gipuzkoa durante las últimas décadas ha llevado aparejado una disminución de las actividades agrarias y pesqueras, como consecuencia tanto de los menores ingresos y productividades obtenidas en términos comparativos, como de las limitaciones de recursos físicos para el desarrollo de dichas actividades.

Este proceso es común a todas las economías. A medida que alcanzan altos niveles de desarrollo económico y bienestar disminuye su aportación porcentual, más aún en un territorio muy reducido geográficamente y altamente urbanizado como Gipuzkoa.

En 1957, año de la constitución europea, la riqueza generada por el sector primario contribuía con una décima parte a la riqueza guipuzcoana. Este porcentaje decae de manera continuada durante las décadas posteriores hasta estabilizarse en los últimos años en el entorno del 1%.

Así, en la actualidad la producción del sector primario guipuzcoano se distribuye, aproximadamente de la siguiente manera, según los últimos datos disponibles: el 40% a la actividad ganadera, el 30% a la pesquera, el 20% a la agrícola y el 10% a la forestal.

**Nekazaritza-jarduera eta arrantza**
**La actividad agraria y la pesca**

**BPGren %** / % del PIB




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

# 5

# LEHIAKORTASUNA ETA GLOBALIZAZIOA

# LA COMPETITIVIDAD Y LA GLOBALIZACIÓN



# 5. LEHIAKORTASUNA ETA GLOBALIZAZIOA

## 5.1. PRODUKTIBITATEA

Barne Produktu Gordinak islatzen du ekonomia jakin batek aberastasuna sortzeko duen gaitasuna. Produktibitateak, oro har neurtzen den eran, zehaztu egiten du sortutako aberastasunaren eta erabilitako enpleguaren arteko erlazioa. Beraz, produktibitatean goranzko joera dagoenean, agerian jartzen da enplegu bakoitzeko sortzen den balioa gehitzeko beharrezkoak diren teknologia, jakintza eta inbertsioaz baliatzeko gaitasuna.

Ildo horretan, produktibitatea adierazle sintetikoa da, gizarte baten jarduera ekonomikoan izandako hobekuntza adierazten duena. Gaur egun, Gipuzkoako produktibitateak 1957koaren balioa laukoizten du, eta 1986koa baino bi heren handiagoa da.

1957. urtetik 1986ra bitartean, Gipuzkoako ekonomiaren garapenaren hasiera gertatu zen. Produktibitate errealaren urteko batez besteko hazkundea % 4,6koa izan zen, batez ere hirurogeiko urteetan eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasierako urteetan.

1986. urtetik 2005. urtera arte, Gipuzkoako ekonomiaren oinarria sendotu zen, urteko batez besteko hazkundea % 3,4 izanda. Laurogeiko hamarkadaren lehenengo urteetan, industriaren birmoldaketa egin zen, doikuntza garrantzitsua; era berean, 1992-1993 biurtekoan izandako atzerakada gainditu zen, eta Gipuzkoako jarduera Europako merkatuaren dinamikan eta merkatuen nazioartekotze orokorrean sartu zen.

# 5. LA COMPETITIVIDAD Y LA GLOBALIZACIÓN

## 5.1. LA PRODUCTIVIDAD

El PIB refleja la capacidad de una economía para generar riqueza. La productividad, tal como se mide habitualmente, establece la relación entre la riqueza generada y el empleo utilizado. Por lo tanto, la tendencia creciente en la productividad manifiesta la capacidad de incorporar la tecnología, el conocimiento y la inversión necesaria para incrementar el valor generado por cada empleo.

La productividad es, en este sentido, un indicador sintético de la mejora en la calidad de la actividad económica de una sociedad. En la actualidad, Gipuzkoa cuadriplica el valor de la productividad de 1957 y es dos tercios superior a la de 1986.

Entre 1957 y 1986 se produce el despegue de la economía guipuzcoana, con un crecimiento medio anual de la productividad real del 4,6% fundamentalmente en la década de los sesenta y primera parte de la década de los setenta.

Entre 1986 y 2005 se consolida la base económica guipuzcoana, con un crecimiento medio anual del 3,4%. Se realizó el ajuste de la importante reconversión industrial de los primeros años ochenta, se superó la recesión del bienio 1992-1993 y la actividad guipuzcoana se incorporó a la dinámica del mercado europeo y a la internacionalización generalizada de los mercados.

**Produktibitatea**
**Productividad**

**1986. urtea = oinarria 100** / Año 1986=base 100




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 5.2. ENPRESA BERRIKUNTZA

Enpresa-berrikuntza Gipuzkoako ekonomiaren eta gizartearen errealitateak eta etorkizunak oinarri duten euskarria da.

Berrikuntza teknologikoa ekonomi garapenarekin eta enpresa-garapenarekin batera doa, eta hau da berrikuntzaz ulertzen dena: oinarrizko ikerkuntza produktuaren definizioari gehitzea eta produktu horren balio-kate osoaren prozesuari. Berritzea ondasun edo zerbitzu baten kokatze orokorrari erantsitako hobekuntza bakoitza errentagarri bihurtzea da.

Azken urteotan berrikuntzaren bultzada enpresasarean nabarmenki handitu bada ere –eta hala islatzen da Gipuzkoako enpresek azkenaldian erakutsi duten dinamismoan–, enpresen % 17 soilik har daiteke berritzailetzat; hala ere, portzentaje horrek gorakada handia izan du, zalantzarik gabe, azken hamarkadetan.

Prozesuen berrikuntza da, betiere, Gipuzkoako enpresa-berrikuntzaren erdigunea, eta berrikuntzaren kostu handiak, txikiagoak diren enpresetan bereziki, enpresa-berrikuntza oztopatzen duten alderdi nagusien artean aipatzen dira. Gastuari dagokionez, Barne Produktu Gordinaren % 3,6 da eta, gehienetan, B+G motako barne-jardueren bidez gauzatzen da, baita makineriaren eta ekipoen erosketaren bidez ere.

## 5.2. LA INNOVACIÓN EMPRESARIAL

La innovación empresarial constituye un pilar sobre el que se asienta la realidad y el futuro económico y social de Gipuzkoa.

La innovación tecnológica es consustancial al desarrollo económico y empresarial y se entiende como el traslado de la investigación básica a la definición del producto y del proceso en el conjunto de la cadena de valor de dicho producto. Innovar es rentabilizar cada mejora incorporada al posicionamiento global de un bien o servicio.

Aunque en los últimos años el impulso innovador ha aumentado significativamente en el tejido empresarial, tal como se refleja en el dinamismo reciente de las empresas guipuzcoanas, apenas el 17% de las empresas pueden calificarse como innovadoras, porcentaje que indudablemente ha experimentado un fuerte avance en las últimas décadas.

La innovación de procesos sigue centrando la innovación empresarial guipuzcoana y los elevados costes de innovación, en particular para las empresas de menor dimensión se mencionan como el principal factor que obstaculiza la innovación empresarial. En términos de gasto, representa el 3,6% del PIB y en su mayor parte se efectúa a través de actividades internas de I+D, así como de la adquisición de maquinaria y equipo.

**Enpresa-berrikuntza**
**Innovación empresarial**

| | 2005 |
|---|---|
| **Establezimendu berritzaileak, guztira (%)**<br>Establecimientos innovadores, total (%) | 17 |
| **Gastua (BPGren %)**<br>Gasto (% del PIB) | 3,6 |
| **Berrikuntzan egiten den gastuaren osaera (%):**<br>Composición del gasto en innovación (%) | |
| • **Barneko B+G** / I+D interna | 42 |
| • **Kanpoko B+G** / I+D externa | 11 |
| • **Makinak** / Maquinaria | 36 |
| • **Beste batzuk** / Otros | 11 |

**Iturria**/Fuente**: Eustat**

## 5.3. I+G

Gipuzkoako ekonomiaren lehiakortasunean izandako hobekuntzak eta aberastasunaren sorrerak beren jatorria dute I+G alorrean egiten den gastuan eta enpresa-berrikuntzan, baita berrikuntza hori produkzioaren oinarrira eta, azken finean, merkatura aldatzean ere.

Ildo horretan, oro har onartuta dago, Europar Batasunaren Lisboako Estrategian islatzen den bezala, I+G alorreko gastuan gora doan eta egokia den mailara iristeak bermatu egiten duela lehiakortasun ekonomikoa eta, beraz, hazkunde ekonomikoa eta kalitatezko enplegua.

Eskura ditugun azken datuek adierazten dute Gipuzkoan, zientzi ikerketan eta garapen teknologikoan izandako gastua Barne Produktu Gordinaren % 1,7koa dela. Azken urteotan, portzentaje hori aurrerantz joan da pixkanaka, Europar Batasuneko kide bihurtu gineneko maila minimoetatik gora.

Horrela bada, I+G alorreko gastuaren barruan, oinarrizko ikerkuntza eta garapena zein berariazko aplikazioak sartzen dira. Beraz, jarduera horretan parte hartzen dute eragile publikoek, enpresek eta goi-mailako irakaskuntzaren sare osoak. Era berean, jarduerak islatzen du egindako produkzioaren konplexutasuna eta sofistikazioa handitzeko eta kalitatezko enplegua eskaintzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko gaitasuna. Gipuzkoan, zehazki, enpresek I+G alorrean gauzatzen duten gastua nabarmendu behar dugu, handiagoa baita unibertsitate-alorrean eta administrazio publikoetan egiten dena baino.

## 5.3. LA I+D

El gasto en I+D y la innovación empresarial y su traslación a la base productiva y, en definitiva al mercado, se sitúa en el origen de la mejora de la competitividad y de la generación de riqueza de la economía guipuzcoana.

Al respecto, es comúnmente aceptado tal como se refleja en la Estrategia de Lisboa de la Unión Europea que, alcanzar un nivel creciente y adecuado de gasto en I+D constituye una de las garantías para la competitividad económica, y por lo tanto del crecimiento económico y el empleo de calidad.

Los últimos datos disponibles reflejan en Gipuzkoa un gasto en actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico del 1,7% del PIB. Durante los últimos años este porcentaje avanza progresivamente desde los niveles mínimos correspondientes al momento de la incorporación a la Unión Europea.

Así, el gasto en I+D incluye la investigación básica y el desarrollo y aplicaciones específicas. Por lo tanto, se trata de una actividad en la que participan los agentes públicos, las empresas y el conjunto de la red de enseñanza superior. Y refleja la capacidad de incrementar la complejidad y sofisticación de la producción realizada y de generar las condiciones precisas para un empleo de calidad. En el caso de Gipuzkoa destaca la ejecución del gasto en I+D por parte de las empresas, en mayor medida que el correspondiente al sector universitario y a las administraciones públicas.

**I+G jarduеretan egiten den gastua**
**Gasto en I+D**

**BPGren %** / % del PIB




**Iturria**/Fuente**: Eustat**

## 5.4. KANPOKO HARTU-EMANAK

Europar Batasunean sartu ginenetik igaro diren hogei urteotan, Gipuzkoak atzerrira –Europar Batasuneko herrialdeak barne– egindako esportazioen kopurua seirekin biderkatu da, euro korronteetan. Termino erlatiboetan, esportazioek Barne Produktu Gordinaren % 27 osatzen dute, eta handitu egin dira 1986. urteko % 20tik gora.

Partaidetzan izandako aurrerapena etengabea izan da azken urteotan, espainiar ekonomia 1959. urtean, autarkialdiaren ondoren, kanporantz zabaldu zenez geroztik. Horren adierazle, 1970eko hamarkadaren erdian, hau da, Europar Batasunean sartu baino hamarkada bat lehenago, esportazioek Barne Produktu Gordinean zuten parte-hartzea % 15 ingurukoa zen. Gipuzkoak, betidanik, ekonomia irekia izan du, bere kokapen geografikoan eta portuan oinarrituta, eta baita bere industri espezializazioan eta tamaina txikian ere.

Europar Batasunean sartzeak irekitasun hori sustatu du. Beste alde batetik, Gipuzkoako industri produkzioaren dinamismoak –nazioarteko ibilbide luzea duten produkzioak baitira– eta komunikazioen zein garraio-moduen etengabeko hobekuntzak ere lagundu egin dute kanpoko fluxuak hazten.

## 5.4. LOS INTERCAMBIOS CON EL EXTERIOR

En los veinte años transcurridos desde la incorporación europea, la cifra de exportaciones de Gipuzkoa al extranjero, incluyendo los países de la Unión Europea, se ha multiplicado por seis, en euros corrientes. En términos relativos, las exportaciones representan el 27% del PIB, con un incremento desde el 20% correspondiente al año 1986.

El avance en la participación ha sido constante durante las últimas décadas y desde la apertura al exterior de la economía española en 1959, tras el periodo autárquico. Como indicador de ello, a mediados de los años 70, es decir, una década antes de la incorporación, la participación de las exportaciones en el PIB se situaba en torno al 15%. Gipuzkoa ha sido históricamente una economía abierta, apoyada en su posición geográfica y en el puerto, así como en su especialización industrial y en su reducido tamaño.

La incorporación a la Unión Europea ha impulsado dicha apertura. El dinamismo de la producción industrial guipuzcoana, con producciones con una dilatada trayectoria internacional, y la mejora continuada en las comunicaciones y modos de transporte, han contribuido asimismo al crecimiento de los flujos exteriores.

**Esportazioak eta inportazioak**
**Exportaciones e importaciones**

**Milioi eurokotan** / Millones de euros




**Iturria**/Fuente**: Eustat**

## 5.5. KANPOKO LEHIAKORTASUNA

Gipuzkoako ekonomia kanpora irten da kanpoko salmenten bidez, eta eremu horretan izandako aurrerapena bertako enpresek kanpo-lehiakortasunean lortutako hobekuntzaren ondorio izan da; era berean, begien bistakoa da nola egokitu den ekonomiaren globalizazio-prozesura, merkataritza-balantzaren ikuspegitik begiratuz gero.

Horrela bada, Gipuzkoak, Europar Batasunean sartzean, kanpoko saldo positiboa zuen, nahiz eta sartu eta ondorengo urteetan negatibo bihurtu. Etapa hori 1993ra arte luzatu zen, eta Gipuzkoako ekonomiak eta enpresek europar ingurunean, eta baita mundu osoan ere, erakusten zuten lehiakortasunaren defizitaren isla izan zen, neurri handian.

Urte horretatik aurrera, Gipuzkoako kanpo-merktaratizaren estaldura-tasa positibo bilakatu zen, eta etaparen azken urtean % 153ra iritsi zen.

Europar Batasuneko kide diren herrialdeek kanpoko salmentetan duten garrantzia erabakigarria da orain ere, eta egonkor mantentzen da, esportazio guztien bi heren inguru osaturik.

Berez, Gipuzkoako esportazioen erdiak Europar Batasuneko lau estatutara joaten dira: Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batura.

Eta kanpora saldutako ondasunen artean, makineria, garraio-materiala eta metalurgia nabarmendu behar dira. Arantzel-sekzio horiek Gipuzkoako esportazioen % 77ko ekarpena egiten dute.

## 5.5. LA COMPETITIVIDAD EXTERIOR

El avance de la presencia exterior de la economía guipuzcoana a través de las ventas al exterior ha sido consecuencia de la mejora de la competitividad exterior de las empresas guipuzcoanas y su adecuación al proceso de globalización de la economía es asimismo palpable si se analiza la balanza comercial.

Así, Gipuzkoa se incorpora a la Unión con un saldo exterior positivo, que se torna negativo en los años posteriores a la incorporación. Esta etapa se prolonga hasta 1993 reflejando en buena medida un déficit competitivo de la economía y de las empresas guipuzcoanas en el entorno europeo y, crecientemente, mundial.

A partir de dicho año la tasa de cobertura del comercio exterior guipuzcoano se torna claramente positiva llegando en el último año al 153%.

El peso de los países miembros de la Unión en las ventas al extranjero sigue siendo determinante, permaneciendo estable en torno a dos terceras partes de las exportaciones totales.

De hecho, la mitad de las exportaciones guipuzcoanas se dirigen a cuatro Estados comunitarios: Francia, Alemania, Italia y Reino Unido.

Y los bienes vendidos al exterior presentan asimismo una fuerte concentración en maquinaria, material de transporte y metalurgia. Estas secciones arancelarias aportan el 77% de las exportaciones guipuzcoanas.

**Merkataritzako balantza**
**La balanza comercial**

**Estaldura-tasa *** / Tasa de cobertura*




*** : (Esportazioak/Inportazioak) X 100** / (Exportaciones/Importaciones) X 100
**Iturria**/Fuente**: Eustat**

# 6

# PERTSONAK ETA JARDUERA EKONOMIKOA
# LAS PERSONAS Y LA ACTIVIDAD ECONÓMICA



# 6. PERTSONAK ETA JARDUERA EKONOMIKOA

## 6.1. ENPLEGUA

1957. urtean, Gipuzkoako enpleguan 186 mila pertsona zenbatzen ziren. Gipuzkoako ekonomiak ondorengo hamarkadetan industrializazio handia izanda, okupazioaren gorakada eragin zuen, 1975ean 260 mila enplegutara iritsi arte. Kopuru hori XX. mendeko gipuzkoar desarrollismoaren historian izandako kopururik altuena da.

Urte horretatik 1986. urtera arte, etengabea izan zen okupazio-kopuruen atzerakada, eta urte horretan 215 mila landunera iritsi zen, hau da, bost enplegututik ia bat desagertu egin zen. Ildo horretan, 1986. urteak inflexio-puntu bat ezarri zuela esan daiteke: Europan sartzeak berekin ekarri zuen jarduera berreraikitzeko eta enplegua berrantolatzeko aukera.

Europar Batasuneko kide bihurtu ginenetik, eta azkeneko hogei urteetan, pertsona berriak sartu dira etengabe, landun gisa, lan-merkatuan, nahiz eta atzerakada arin bat gertatu 1990eko hamarkadaren hasierako urteetan. Hala eta guztiz ere, XXI. mendea ia hasi arte, eta zehazki 1998. urtera arte, ordaindutako enplegua zuten pertsonen kopuruak ez zuen 1975ekoa gainditu, eta urte horretatik gaur egunera arte, urtero erdietsi da beste "gehienezko historiko" bat.

2006. urtean, okupazioan 316 mila pertsona inguru zenbatetsi ziren. Hau da, Europar Batasuneko kide bihurtu ginenetik, 100 mila pertsona baino gehiago sartu dira lan-merkatuan enplegatu gisa, eta hori da Gipuzkoako biztanleriaren ongizateari eusten dion oinarria.

# 6. LAS PERSONAS Y LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

## 6.1. EL EMPLEO

En 1957 el empleo en Gipuzkoa se cifraba en 186 miles de personas. La fuerte industrialización de la economía guipuzcoana en las décadas posteriores origina un avance del empleo hasta alcanzar la cifra de 260 miles de empleos en 1975, máximo histórico del ciclo del desarrollismo guipuzcoano del siglo XX.

Desde esta fecha hasta 1986, el retroceso de las cifras de ocupación es continuo, alcanzando en este año la cifra de 215 miles de ocupados, es decir, casi uno de cada cinco empleos desaparecen. En este sentido, puede decirse que 1986 marca un punto de inflexión: la integración en Europa representó la oportunidad para la reconstrucción de la actividad y la recomposición del empleo.

A partir de la incorporación y durante los últimos veinte años la entrada de nuevas personas como ocupadas en el mercado de trabajo ha sido continua, con un ligero retroceso en los primeros 90. No obstante, hasta los albores del presente siglo, concretamente en 1998, las personas con empleo remunerado no llegan a superar a las de 1975 y desde dicho año hasta la actualidad se ha alcanzado todos los años un nuevo "máximo histórico".

En 2006 la ocupación se estima en 316 miles de personas. Es decir, desde la incorporación europea más de 100 mil personas se han incorporado como empleados al mercado de trabajo, constituyendo la base que soporta el bienestar de la población guipuzcoana.

**Enplegua**
**Empleo**

**Pertsonen kopurua milakoetan** / Miles de personas




**Iturria**/Fuente**: BBVA eta Eustat** / BBVA y Eustat

## 6.2. ENPLEGU ORDAINDUA DUTEN PERTSONAK

Enpleguak hazkunde handia izan du azken urteotan, eta horren eraginez biztanleriaren ia erdiak lan ordaindua du. Zehazki, % 47koa da portzentajea, nahiz eta adineko biztanleen kopurua handitu eta prestakuntza akademikoaren aldia luzatu.

Datu horrek azal dezake, hein handian, Europar Batasunean sartu ginenetik Gipuzkoako biztanleen ongizate ekonomikoan izandako hobekuntza.

Europar Batasuneko kide bihurtu ginen urtean, lana zuten biztanleen portzentajea biztanleria osoaren % 31 zen. Beraz, azkeneko hogei urteetan, igoera 16 puntukoa izan da.

Era berean, biztanle landunek biztanleria osoan duten partaidetza ere handiagoa da Europar Batasuna eratu zenekoa baino; urte hartan, langabeziak eraginik ia izan ez bazuen ere, Gipuzkoan bizi ziren pertsonen enplegua izateko joera (jarduera-tasa) txikiagoa zen.

## 6.2. LAS PERSONAS CON EMPLEO REMUNERADO

El fuerte crecimiento del empleo de los últimos años ha originado que casi la mitad de la población disponga de una ocupación remunerada. Concretamente el 47%, a pesar del incremento de la población mayor y de la prolongación del periodo de formación académica.

Este dato explica en buena medida la mejora del bienestar económico de la población guipuzcoana desde la integración en la Unión Europea.

El año de la incorporación, la población que tenía empleo se cifraba en el 31% del total. Por tanto en los últimos veinte años el incremento ha sido de 16 puntos.

La participación de población empleada en la población total en la actualidad es asimismo superior a la registrada en el momento de la creación de la Unión, fecha en la que, aunque la incidencia del desempleo era prácticamente inexistente, la disposición a emplearse (tasa de actividad) de las personas residentes en Gipuzkoa era inferior.

**Enplegu ordaindua duten pertsonen kopurua**
**Personas con empleo remunerado**

**Biztanleriaren %** / % de la población




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 6.3. PRESTAKUNTZA ETA GIZA KAPITALA

1964. urtean, biztanleria landun ia osoak lehen mailako ikasketak soilik eginak zituen. 1986. urtean, kopurua erdira murriztu zen gutxi gorabehera, eta % 14ak goi-mailako ikasketak eginak zituen.

Prestakuntzan izandako aldaketa, beraz, oso nabarmena izan da azkeneko berrogeita hamar urteotan, eta bereziki intentsua izan da azken hogei urteetan; izan ere, 2006. urtean, hiru pertsona landunetatik ia batek eginak zituen goi-mailako ikasketak.

Prestakuntzaren aurrerapen handiarekin batera, neurri handian, enpresa-sarean prestakuntza hobea duten pertsonen eskaera gertatu da, enpresa eraberritzeko eta berrantolatzeko beharrei jarraituz.

Era berean, Gipuzkoako ekonomiaren barruan, berrikuntza-alorrean eta nazioartekotzeko alorrean lehiakortasuna hobetzeko prozesuarekin jarraitzeko eta prozesu hori sendotzeko, beharrezkoa izango da, datozen urteetan, enpleguaren barruan dauden pertsonen trebakuntza hobetzea eta, batez ere, aktiboak diren pertsonen prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesua etengabeko bilakatzea.

## 6.3. LA FORMACIÓN Y EL CAPITAL HUMANO

En 1964, la práctica totalidad de la población ocupada contaba únicamente con estudios primarios. En 1986 se reduce a cerca de la mitad y ya el 14% ha realizado estudios superiores.

Así, el cambio formativo ha sido muy importante en los últimos cincuenta años y especialmente intenso en los últimos veinte años, puesto que en 2006, casi una de cada tres personas ocupadas cuenta con estudios superiores.

El fuerte avance de la formación ha sido acompañado en buena medida de la demanda de mayor cualificación de las personas desde el tejido empresarial en consonancia con las necesidades de innovación y renovación empresarial.

Asimismo la continuidad e intensificación del proceso de mejora competitiva de la economía guipuzcoana, en las áreas de innovación e internacionalización, requerirá a lo largo de los próximos años tanto de una mejora de la cualificación de las personas incorporadas al empleo como, sobre todo, de un proceso formativo y de aprendizaje permanente de las personas ya activas.

**Biztanleria okupatuaren ikasketak**
**Formación de la población ocupada**

**Biztanleria okupatuaren %** / % de la población ocupada




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 6.4. ENPLEGUA SEKTORE HANDIETAN

Europar Batasuneko kide bihurtu ginenean, Gipuzkoako biztanleriaren erdiak zerbitzuetan lan egiten zuen, % 40ak industrian, eta gainerakoek lehen sektorean eta eraikuntzan.

1970eko hamarkadaren erdian, zerbitzuen jardueren portzentajea handitzen hasi zen jadanik okupazioan, industri berrantolaketarekin eta hirugarren sektoreko jardueren dinamismoarekin batera.

Gaur egun, estatistikoki zerbitzuen sektorearen barruan dauden jardueretan, biztanleria landunaren gehiengoa ari da lanean, % 62 zehazki.

Hirugarren sektoreko okupazioaren portzentajezko igoera orekatu da industriaren eta, neurri txikiagoan, nekazaritzaren eta arrantzaren portzentajezko gutxitzearekin.

Hala ere, industriak enplegua ematen die, zuzenean, hamar pertsona landunetatik hiruri –ekonomia garatuetakoa baino proportzio handiagoa–, eta hirugarren sektoreko okupazioa ere bultzatzen du.

Hirugarren sektoreko jardueren artean, honako alor hauetan sortzen den enplegua nabarmendu behar dugu: merkataritzan, enpresei eskainitako zerbitzuetan, hezkuntzan, osasungintzan, ostalaritzan, administrazio publikoan eta garraioan.

## 6.4. EL EMPLEO EN GRANDES SECTORES

En el momento de la incorporación a la Unión, la mitad de la población guipuzcoana trabajaba en los servicios, un 40% en la industria, distribuyéndose el resto entre el sector primario y la construcción.

La mayor presencia de las actividades de servicios en la ocupación ya se había iniciado a mediados de los 70, asociada a la reestructuración industrial y al dinamismo de las actividades terciarias.

En la actualidad las distintas actividades integradas estadísticamente en el sector de servicios emplean a una mayoría de la población ocupada, concretamente el 62%.

El avance porcentual de la ocupación terciaria se ha compensado con una disminución porcentual de la industria y, en menor medida, de la agricultura y la pesca.

No obstante, la industria da empleo directamente a tres de cada diez personas ocupadas, proporción superior al de las economías desarrolladas, traccionando asimismo la ocupación terciaria.

Entre las actividades terciarias destaca la generación de empleo por los sectores de comercio, servicios a las empresas, educación, sanidad, hostelería, administración pública y transporte.

**Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen kopurua**
**Personas empleadas en los servicios**

**Enplegu osoaren %** / % del empleo total




**Iturria**/Fuente**: BBVA Fundazioa eta Eustat** / Fundación BBVA y Eustat

## 6.5. LANGABEZIA

1970eko hamarkadaren erdira arte, langabeziak Gipuzkoan zuen eragina guztiz txikia zen. 1975. urtetik 1986. urtera arte, langabeziaren eragina izugarri igo zen. Izan ere, Europar Batasunean sartu ginenean, lan egin nahi zuten bost pertsonatatik batek ez zuen lanik, eta proportzio hori handiagoa zen biztanle gazteenen eta emakumeen artean. Europar Batasunean sartu eta hurrengo hamarkadan, langabezia-tasa oso maila altuan mantendu zen, eta nabarmen jaitsi zen 1996tik aurrera. 2006. urtean tasa baxua zuen, % 2,9koa.

Enpleguan izandako hobekuntzaren funtsezko zati bat emakumearen okupazioaren isla bada ere, prozesu hori ez da azkarra izan. Berez, 1990eko hamarkadaren erdian lan egin nahi zuten hiru emakumetatik bat ezin zen lanean aritu. Tasa % 3 baino handixeagoa zen 2006. urtean. Murrizketa agerikoagoa da biztanle gazteenen artean, 16 eta 24 urte bitartekoen multzoan, alegia: 1986. urtean, lan egin nahi zuten gazteen erdiek ez zuten enplegurik, eta hogei urte geroago portzentaje hori % 6ra jaitsi da.

Biztanle gazteenen okupazioan izandako hobekuntzaz gain, langabeziaren murrizketan zerikusi handia izan du Gipuzkoan adin talde horretan dauden biztanleen kopurua nabarmen jaitsi izanak. Horrela bada, adin talde hori –gaur egun 60.000 pertsona inguru– % 45ean murriztu da gutxi gorabehera, duela hogei urte talde horren barruan zeuden pertsonen kopuruarekin alderatuta.

## 6.5. EL DESEMPLEO

Hasta mediados de la década de los 70 la incidencia del desempleo en Gipuzkoa era mínima. A partir de 1975 y hasta 1986, la incidencia del desempleo se "dispara". De hecho, en el momento de la incorporación una de cada cinco personas que desea trabajar, carece de ocupación, proporción que aumenta entre la población más joven y entre las mujeres. En la década posterior a la incorporación la tasa de paro se mantiene a niveles muy elevados, para reducirse drásticamente a partir de 1996 y alcanzando en 2006 una tasa reducida, del 2,9%.

Aunque una parte fundamental de la mejora en el empleo se ha traducido en la ocupación de la mujer, este proceso no ha sido rápido. De hecho, una de cada tres mujeres que deseaba trabajar a mediados de los 90 no podía hacerlo, reduciéndose en 2006 a una tasa ligeramente superior al 3%. La disminución es más intensa entre la población más joven, de 16 a 24 años: en 1986 la mitad de los jóvenes que deseaba ocuparse carecía de empleo, habiendo disminuido hasta el 6% veinte años después.

Además de la mejora de las cifras de ocupación de la población más joven la reducción del desempleo ha sido impulsada por la intensa reducción de la población guipuzcoana de este grupo de edad. Así, este grupo de edad que en la actualidad ronda las 60.000 personas se ha reducido en un 45% con respecto a las personas que integraban el mismo hace veinte años.

**Langabezia**
**Desempleo**

**Langabezia-tasa *** / Tasa de paro*




*** : Biztanleria aktiboaren %** / * : % de la población activa
**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

# 7

# LURRALDEA ETA MUGIKORTASUNA
# EL TERRITORIO Y LA MOVILIDAD



# 7. LURRALDEA ETA MUGIKORTASUNA

## 7.1. BIZTANLERIAREN BANAKETA

Gipuzkoako biztanleriak azkeneko berrogeita hamar urteotan izan duen hazkundea era aski homogeneoan banatu da lurralde osoan. Horrela, Gipuzkoaren egituraketaren oinarria izan da, hain zuzen ere, bertako biztanleria lurraldean orekaz banatuta egotea. Hala eta guztiz ere, lurralde-oreka hori pixkanaka aldatzen ari da, eta kostaldeko zerrenda konurbazioa osatzen ari dela hauteman daiteke.

Horrela bada, biztanleek lurraldean duten kokapenaren bilakaera aztertuta, agerian jartzen da kostaldeko zerrenda, Zarauztik Iruneraino, osatzen duten udalerrien goranzko joera; horrekin batera, eta alderantziz, barnealdeko eskualdeak –hala nola Debabarrena, Goierri eta Tolosaldea– garrantzi erlatiboa galtzen ari dira.

Izan ere, Bidasoa Beherea, Donostialdea eta Urola Kosta eskualdeetan biztanleriaren % 61 bizi zen 1960. urtean, eta gaur egun portzentajea % 67ra igo da (% 65ekoa zen Europar Batasuneko kide bihurtu ginen urtean). Horrek aditzera ematen du biztanleriak kostaldea nahiago duela bizitzeko.

# 7. EL TERRITORIO Y LA MOVILIDAD

## 7.1. LA DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN

El incremento de la población guipuzcoana en los últimos cincuenta años, se ha distribuido de forma bastante homogénea a lo largo del territorio. Así, la vertebración de Gipuzkoa se ha sustentado, precisamente, en el equilibrio de la distribución territorial de su población. No obstante, este equilibrio territorial va modificándose paulatinamente, observándose que la franja costera va conformando una conurbación.

Así, en la evolución de la ubicación territorial de la población se pone de manifiesto la tendencia creciente de la red de municipios que integran la franja costera, desde Zarautz hasta Irún y, por el contrario, la paulatina pérdida del peso relativo de comarcas más interiores, como Bajo Deba, Goierri y Tolosaldea.

En efecto, las comarcas de Bajo Bidasoa, Donostialdea y Urola Costa que en 1960 albergaban al 61% de la población, han aumentado esta participación hasta el 67% en la actualidad (65% en el año de la incorporación a la Unión), reflejando la preferencia de la población por la residencia en el entorno costero.

**Biztanleria eskualdeen arabera**
**Población por comarcas**

**Biztanle guztien %** / % de la población total




**Iturria**/Fuente**: INE eta Eustat** / INE y Eustat

## 7.2. PERTSONEN MUGIKORTASUNA

Biztanleak Gipuzkoako geografia osoan mugitzeko joera era ikusgarrian handitu da azkeneko hogeita hamar urteotan, gizarte gero eta konplexuago eta aberatsagoaren bilakaerari jarraituz: pertsonak beste udalerri batera lekualdatzen dira lan egiteko, ikasteko edo dibertitzeko, nagusiki. Hori da biztanleak eskualdean eta lurraldean lekualdatzearen arrazoia.

Gorakada horretan, erabakigarria izan da lurraldeloturan izandako hobekuntza etengabea, eta hobekuntza horren oinarri izan dira errepide-sarea eta bidaiarien talde-garraioa, hiri barruko zein hiriartekoa zabaltzea, hobetzea eta finkatzea.

Erreferentziazko adierazle gisa, nabarmendu behar dugu azken berrogeita hamar urteetan hamahirurekin biderkatu dela gipuzkoar biztanleen auto partikularren kopurua.

Nor bere ibilgailuan mugitzeak hartu duen garrantziari erantsi behar zaio gero eta eskaintza handiagoa dagoela garraio publikoan, bai errepidean, bai trenbidean, eta horretan lagungarri dela komunikazioen azpiegiturek izandako garapen handia.

## 7.2. LA MOVILIDAD DE LAS PERSONAS

La movilidad de la población a lo largo de la geografía guipuzcoana crece de forma espectacular en los últimos treinta años, de acuerdo con la evolución de la sociedad cada vez más compleja y más rica: las personas cambian de municipio principalmente para trabajar, estudiar o divertirse, lo que explica el aumento de su movilidad comarcal y territorial.

En este aumento ha sido determinante la mejora continuada de la conexión territorial, apoyada en la ampliación, mejora y consolidación de la red de carreteras y de los transportes colectivos de viajeros, urbanos e interurbanos.

Como indicador de referencia cabe destacar que en los últimos cincuenta años se multiplica por trece el número de automóviles particulares de la población guipuzcoana.

A la importancia de la movilidad apoyada en el vehículo propio hay que sumarle la oferta igualmente creciente de los servicios de transporte público, tanto por carretera como ferroviaria, apoyada en un fuerte desarrollo de las infraestructuras de comunicaciones.

**Automobilak**
**Turismos**

**Ibilgailuen kopurua milakoetan** / Miles de vehículos




**Iturria**/Fuente**: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta Eustat** / Dirección General de Tráfico y Eustat

## 7.3. TRAFIKOA

Biztanleriaren mugikortasunak eta garraio pribatuaren erabilerak izandako igoera handiarekin batera, kontuan hartu behar dugu Gipuzkoa pasadizoko gunea dela, loturagunea kontinentearekin, eta atea Mesetan sartzeko, eta errealitate geografiko horretan salgaien garraioak, neurri handian errepidez egiten baita, garrantzi handia hartzen duela.

Gipuzkoako komunikazio-ardatz nagusietan dagoen ibilgailuen trafikoa hirukoiztu egin da azken hogei urteetan. Urteko hazkunde metatua ia % 6koa izan da, Gipuzkoako Barne Produktu Gordina (% 3,6) baino askoz ere handiagoa. Beste alde batetik, biztanleria egonkor mantentzen da. Espainia eta Portugal Europar Batasuneko kide bihurtzeak, halaber, berekin ekarri zuen Gipuzkoako lurraldean errepideko trafikoak gorakada handia izatea, produkzio-jardueraren globalizazio gero eta handiagoaren ingurumarian. Horren adierazle gisa adieraz dezakegu ibilgailu astunen trafikoak 1990etik izandako igoerak ibilgailu arinena bikoizten duela ia.

Gauzak horrela, azpimarratzekoa da errepide-sarearen berrikuntza eta hobekuntza, eta aipagarria da Etxegarate bikoiztu egin dela eta Eibar-Gasteiz autobidearen zati bat funtzionamenduan jarri dela. Hala eta guztiz ere, trafikoaren gorakada handia zein ingurumenean, ekonomian eta gizartean sortzen duen eragina ikusita, beharrezkoa izan daiteke talde-garraioa sustatzea, eta baita errepidez egiten ez diren beste modu batzuk ere, burdinbideko garraioa batik bat.

## 7.3. EL TRÁFICO

Junto al fuerte aumento de la movilidad de la población y del uso del transporte privado, Gipuzkoa es un espacio de tránsito y punto de conexión con el continente y la entrada a la Meseta, realidad geográfica en el que la actividad del transporte de mercancías, en gran medida por carretera, adquiere una gran relevancia.

El tráfico de vehículos por los principales ejes de comunicación guipuzcoanos se ha triplicado en los últimos veinte años, con un crecimiento acumulativo anual cercano al 6%, muy superior al del PIB de Gipuzkoa (3,6%) y con una población estabilizada. La incorporación de España y Portugal a la Unión Europea, en un contexto de creciente globalización de la actividad productiva, ha impulsado asimismo el fuerte aumento del tráfico por carretera en el territorio guipuzcoano. Como indicador de ello, el crecimiento del tráfico de vehículos pesados desde 1990 casi duplica al de vehículos ligeros.

En este contexto, la renovación y mejora de la red de carreteras ha sido notable, pudiendo destacarse el desdoblamiento de Etxegarate y la entrada en funcionamiento parcial de la autovía Eibar-Vitoria. No obstante, el fuerte crecimiento del tráfico y su incidencia ambiental, económica y social, plantea la necesidad de impulso del transporte colectivo, así como de modos alternativos a la carretera, principalmente ferroviario.

### Errepideko trafikoa
### Tráfico por carretera

**Eguneko batez besteko intentsitatea (1985. urtea = Oinarria 100)**
Intensidad media diaria (año 1985=Base 100)




**Oharra: N-1 errepidearen eta A-8 autobidearen batez bestekoa**
Nota: Media de la carretera N-1 y de la autopista A-8
**Iturria: Geuk egindako zenbatespena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuetan oinarrituta**
Fuente: Estimación propia a partir de datos de la Diputación Foral de Gipuzkoa

## 7.4. PASAIAKO PORTUA

Azkeneko berrogeita hamar urteetako historiaren ikuspegitik begiratuz gero, Gipuzkoako ekonomiaren azpiegitura nagusia den Pasaiako portuaren bilakaera laburbil daiteke erauzketa- eta merkataritza-flotaren garapenarekin duen lotura eta portuko *hinterland*en garapenari eman dion bultzada aztertuta.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan, Pasaiako portua lehenengo postuetan zegoen Estatuko arrantza-portuen artean, eta bakailao-flota nagusiaren amarralekua zen. Amarratutako flotari eta lehorreratutako arrantzaren bolumenari bagagozkie, 1976. urtean iritsi zen unerik gorenera. Urte horretatik aurrera, Nazioarteko Itsas Zuzenbidean eta Europar Batasunari Atxikitzeko Itunean izandako aldaketei jarraituz, flotaren ahalmenean eta harrapaketen mugaketan beharrezkoak diren doikuntzak egin dira.

Pasaiako portua merkataritza-portua da, Historiaren une bakoitzeko beharretara egokitu dena. Ondorioz, arrantza lehorreratzeak izan duen garrantzitik automobilaren edo txatarraren alorrean bizi izandako finkapenera igaro da. 2006. urtean, portuan mugitu ziren salgaien bolumen osoa 5 milioi tonatik gorakoa izan zen.

Pasaiako portuko jarduerak gertuko ingurunean itsasontziarekin lotura duten hornitzaileak behar ditu (eraikuntza, mantentze-lanak, zuzkidura), eta baita bere beharrei erantzuten dien berariazko zerbitzuen sare bat ere (logistika, jasotzaileak, aseguruak). Pasaiako portuak Gipuzkoaren garapenean egindako ekarpenak, salgaien garraioak portuari ematen dion balioa gainditzen du, ingurunearen bultzatzaile garrantzitsua izan baita, eta jarduera ugaritan, gero eta gehiagotan, eragina baitu.

## 7.4. EL PUERTO DE PASAJES

La perspectiva histórica de la evolución del Puerto, infraestructura central de la economía guipuzcoana, durante los últimos cincuenta años puede sintetizarse a través de su vinculación con el desarrollo de la flota extractiva y mercante y su efecto tractor en el desarrollo del hinterland portuario.

En las décadas 60 y 70, el Puerto de Pasajes ocupó uno de los primeros lugares entre los puertos pesqueros del Estado, siendo el punto de amarre de la principal flota bacaladera. El punto álgido, en el tamaño de la flota amarrada y en el volumen de pesca desembarcada, se alcanzó en 1976. A partir de esta fecha se van realizando los ajustes requeridos en la capacidad de la flota y las limitaciones en la captura derivados de los cambios en el Derecho Marítimo Internacional y el Tratado de Adhesión a la Unión Europea.

El Puerto de Pasajes es un puerto mercante que se ha adaptado a las necesidades de cada momento histórico. En consecuencia, ha basculado desde la importancia de la aportación del desembarco de pescado a la consolidación del segmento del automóvil o de la chatarra. En 2006 el volumen total de mercancías movidas supera los 5 millones de toneladas.

La actividad en el Puerto de Pasajes necesita del entorno de proximidad, proveedores ligados al buque (construcción, mantenimiento, avituallamiento), además de requerir de un tejido de servicios específico (logística, consignatarios, seguros) que le atienda. La contribución del Puerto de Pasajes al desarrollo de Gipuzkoa supera el valor otorgado en términos de transporte de mercancías, con un efecto tractor decisivo en el entorno, incidiendo en un número amplio y creciente de actividades.

**Portuko trafikoa**
**Tráfico portuario**

**Mila tonakotan** / Miles de toneladas




**Iturria: Sustapen Ministerioa eta Pasaiako Portua**
Fuente: Ministerio de Fomento y Puerto de Pasajes

## 7.5. HONDARRIBIKO AIREPORTUA

Hondarribiko aireportua aireko garraiorako lurraldeko azpiegitura da, eta bertako jarduerak igoera handia izan du, batez ere Europar Batasunean sartu eta gero.

Gipuzkoako aerodromoko jardueraren bilakaeran era askotako alderdiek izan dute eragina. Lehenik eta behin, beharbada, eta alderdi nagusi gisa, aireportuaren neurriak eta kokalekua aipatu behar ditugu, hori dela-eta barneko edo eskualdeko helburua duen aerodromoa baita.

Bigarrenez, adierazi behar dugu Hondarribiko aireportua gertuko beste aerodromo batzuek osatutako sare baten barruan dagoela, eta horrek baldintzatzen duela bai biztanleen eskaera, bai aireportuak berak kudeatzen duen eskaintza (hegaldiak, helmugak, aireontziak).

Nolanahi ere, eta aireportuaren ahalmenean alderdi horiek duten eragina onartuta, kontuan hartu behar dugu dinamismo ekonomikoak eta pertsonen mugikortasunaren gorakadak bidaiarien kopuruan hobekuntza handia eta etengabea bultzatu dutela, hogeita hamar urtetan seirekin biderkatu baita.

## 7.5. EL AEROPUERTO DE HONDARRIBIA

La actividad del aeropuerto, que es la infraestructura de transporte aéreo del territorio, muestra un importante crecimiento de su actividad, especialmente con posterioridad a la entrada en la Unión Europea.

En la evolución de la actividad del aeródromo guipuzcoano inciden factores de distinta índole. Posiblemente, el primero y más importante de ellos es su propia dimensión y ubicación, que lo posiciona como aeródromo de destino interior o regional.

En segundo lugar, su participación en una red en la que existen otros aeródromos en el entorno de proximidad, lo que condiciona tanto la demanda de la población como la propia oferta (vuelos, destinos, aeronaves) que se realice desde su gestión.

No obstante, y asumiendo estos parámetros en su capacidad, lo cierto es que el dinamismo económico y el crecimiento de la movilidad de las personas propicia la importante y continuada mejora en el número de pasajeros que, en treinta años, se ha multiplicado por seis.

**Bidaiarien trafikoa**
**Tráfico de pasajeros**

**Bidaiarien kopurua (1986ko oinarria = 100)** / Nº de pasajeros (Base 1986 =100)




**Iturria**/Fuente: **Sustapen Ministerioa** / Ministerio de Fomento

# 8

## BIZI-KALITATEA
## LA CALIDAD DE VIDA



# 8. BIZI-KALITATEA

## 8.1. BIZI-BALDINTZAK

Gipuzkoako biztanleen bizi-baldintzak nabarmen hobetu dira azken hamarkadetan, eta gaur egun ongizate ekonomikoaren maila handia dute.

Ildo horretan, azken urteotan, Gipuzkoako etxeetan ere hobetu egin da familiek beren egoera ekonomikoaz eta baita erabiltzen dituzten etxeko ekipamenduez ere duten pertzepzioa.

Horrez gain, badira beste adierazle batzuk, Gipuzkoako etxeetako bizi-baldintzei gaur egun kalitatea eskaintzen dietenek eta lortutako ongizatearen maila aditzera ematen dutenak.

Horrela bada, hamar etxetatik zortzitan autoa dute, eta hamarretatik zazpitan jabetzako etxebizitza jadanik ordaindua dute eta, beraz, baliabide ekonomiko batzuk aurrezteko erabil ditzakete.

# 8. LA CALIDAD DE VIDA

## 8.1. LAS CONDICIONES DE VIDA

Las condiciones de vida de la población guipuzcoana han mejorado intensamente en las últimas décadas, disfrutando de un nivel de bienestar económico elevado.

En este sentido, en los últimos años ha mejorado la percepción de los hogares guipuzcoanos con respecto a su situación económica general, así como a la disponibilidad de equipamientos en el hogar.

Pero, además, hay otros indicadores que cualifican las condiciones de vida de los hogares guipuzcoanos en la actualidad y que son indicadores del estándar de bienestar alcanzado.

Así, ocho de cada diez hogares dispone de coche, y siete de cada diez de vivienda en propiedad y pagada y puede destinar recursos económicos al ahorro.

**Bizi-baldintzak**
Condiciones de vida

**Etxeen %** / % de hogares

| | 1989 | 2004 |
|---|---|---|
| **Etxeko egoera ekonomikoa nola hautematen den**<br>Percepción de la situación económica del hogar | | |
| • **Egoera txarra** / Mala | 32 | 25 |
| • **Hala-holakoa**/ Regular | 23 | 22 |
| • **Ona**/ Buena | 45 | 53 |
| **Etxeko oinarrizko ekipamenduak**<br>Equipamientos básicos de la vivienda | | |
| • **Gutxi** / Pocos | 26 | 15 |
| • **Batzuk** / Algunos | 60 | 57 |
| • **Asko** / Mucho | 14 | 28 |
| **Beste adierazle batzuk**<br>Otros indicadores | | |
| • **Jabetzako etxebizitza jadanik ordaindua dutenak**<br>Con vivienda en propiedad y pagada | 71 | 71* |
| • **Bigarren etxebizitza dutenak** / Con segunda vivienda | 14 | 20* |
| • **Autoa dutenak** / Con coche | 63 | 82* |
| • **Azken urtean aurreztu dutenak**<br>Han ahorrado en el último año | — | 70* |

*** : 2007ko datuak** / * : Datos de 2007
**Iturria**/Fuente**: Eustat eta Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa** / Eustat y Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras

## 8.2. KONTSUMOA

Etxeetako kontsumoak hazkunde geldiezina erakusten du, bizi izandako hazkunde ekonomikoarekin bat. Biztanle bakoitzeko errenta erreala seikoiztu egin da azken berrogeita hamar urteetan, eta bikoiztu azken hogei urteetan, Europar Batasuneko kide bihurtu ginenez geroztik.

Errentaren eta kontsumoaren igoerarekin batera, aldaketa sakona hauteman da horien osaeran. Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, gastuaren oinarria premia biziko gaiak ziren (elikadura, jantziak, oinetakoak), eta gero eta garrantzitsuago bilakatu zen etxeko ondasunak erostea (elektrotresnak, automobila).

Laurogeiko hamarkadan, aldaketa kualitatiboa gertatzen hasi zen, ondorengo hamarkadetan sendotu zena, alegia: produktuen kontsumoa jaitsi egin zen, eta zerbitzuen kontsumoa igo. Era berean, kontsumitutako zerbitzuen barruan gero eta alderdi gehiago sartu ziren, besteak beste aisialdiarekin, oporrekin edo edertasunarekin lotutakoak.

Alderdi bereizgarri gisa, eta laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik bereziki, nabarmendu behar dugu etxebizitzari lotutako gastuaren igoera, bosten bat izatetik gastuaren heren bat izatera pasa baitzen.

## 8.2. EL CONSUMO

El consumo de los hogares muestra un crecimiento imparable y acorde con la expansión económica vivida. La renta real por habitante se sextuplica en los últimos cincuenta años y se duplica en los últimos veinte años, desde la integración en la Unión.

Junto con el aumento de la renta y del consumo se registra un profundo cambio en su composición. En las décadas de los sesenta y de los setenta la base de su gasto siguen siendo los artículos de primera necesidad (alimentación, vestido, calzado) y se incorpora de forma creciente la compra de bienes del hogar (electrodomésticos, automóvil).

En la década de los ochenta se inicia el cambio cualitativo que se consolidará en las décadas posteriores: pierde peso el componente del consumo de productos en favor de los servicios. De forma creciente, se amplía el rango de servicios consumidos, incorporando los relativos a ocio, vacaciones o de belleza, entre otros.

Como factor diferencial, y fundamentalmente a partir de la década de los noventa, destaca la importancia adquirida del gasto asociado a la vivienda que pasa de ser una quinta parte a representar un tercio del mismo.

**Kontsumoaren banaketa**
**Distribución del consumo**

**Guztiaren %** / % del total




**Iturria**/Fuente**: INE**

## 8.3. AURREZTEA

Finantza-erakundeetan gordetako aurrezkiek igoera handia izan dute azkeneko hamarkadetan. Zehazki, azken hiru hamarkadetan hogeirekin biderkatu dira, moneta-unitate korronteetan.

Bilakaera horrek Gipuzkoako biztanleen hazkunde ekonomikoa islatzen du, herritarrek gordailua aukeratzen baitute aurrezteko modu gisa, beste aukera batzuen bidez osatuta –inbertsio-funtsak, pentsio-planak edo burtsan inbertitzea, besteak beste–.

Beste alde batetik, emaitza horiek agerian jartzen dute gertatu den gizarte-garapena, finantzen ikuspegitik erantzun gero eta azkarrago eta konplexuagoa behar baitu. Horrela bada, 60ko eta 70eko hamarkadetan, finantza-bulegoen sarea zabaldu zen; 80ko hamarkadan, kutxazain automatikoen sarea; 90eko hamarkadan, telefono bidezko banka; eta geroago, Interneten bidezko banka.

Beste alde batetik, egungo finantza-eskaintzaren egoera, ikuspegi horretatik begiratuta, guztiz ezberdina da, batez ere 1986. urteaz geroztik. Europar Batasuneko kide izateak finantza-eskaintza sustatu eta eraldatu zuen, eta konkurrentzia eta lehiakortasuna bultzatu zituen.

## 8.3. EL AHORRO

El ahorro depositado en las entidades financieras aumenta fuertemente en las últimas décadas, multiplicándose por veinte en las tres últimas décadas en unidades monetarias corrientes.

Esta evolución refleja la expansión económica de la sociedad guipuzcoana que recurre al depósito como forma de ahorro, que se ha venido completando con otras opciones como los fondos de inversión, los planes de pensiones o la inversión en Bolsa, entre otros.

Además, estos resultados manifiestan el desarrollo social acontecido, que necesita una respuesta financiera cada vez más rápida y compleja. Así, en la década de los 60 y 70 se produce la expansión de la red de oficinas, en los 80 el despegue de la red de cajeros automáticos, en los 90 la banca telefónica y posteriormente, la banca por Internet.

Por otra parte, el escenario actual de la oferta financiera es, desde esta perspectiva, radicalmente diferente y especialmente desde 1986. La entrada en la UE impulsó y transformó la oferta financiera, impulsando la competencia y su competitividad.

**Aurreztea finantza-erakundeetan**
Ahorro en las entidades financieras

**1986ko oinarria = 100 (unitate korronteak)** / Base 1986=100 (unidades corrientes)




**Oharra: 1986. urtetik aurrera, barnean sartu dira kreditu-kooperatibak**
Nota: A partir de 1986 incluye a las Cooperativas de Crédito
**Iturria**/Fuente**: Espainiako Bankua** / Banco de España

## 8.4. ETXEBIZITZA

Etxebizitza multzoa nabarmen handitu da aztertzen ari garen aldi osoan. 1957tik hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdira arte, biztanleriaren igoerak izandako eragina nagusitu zen. Egoera horretan bereziki nabarmendu behar ditugu immigrazioa eta etxeetako errenten hobekuntza orokorra.

1986. urtetik aurrera, biztanleriaren hazkundean geldialdia gertatu bazen ere, etxebizitzaren eskaera gero eta handiagoaren oinarrian dauden alderdiak eratzen hasi ziren, bereziki familien tamaina murriztearekin eta etxe berean bizi diren belaunaldien kopurua murriztearekin lotuta.

Horrela bada, alderdi hauek dira etxebizitzen kopurua igotzea bultzatu dutenak: *baby-boom* delako belaunaldiko pertsonak (45 urtetik beherakoak) lan-merkatuan sartzean sortu den eskaera, familietan gertatutako aldaketa (guraso bakarrekoak, pertsona bakarrekoak, bakarrik bizi diren adineko pertsonak), eta etxebizitzak inbertsio-ondasun gisa jotzea.

Azken urteotan, igoera handia izan du bukatutako etxebizitzen kopuruak. Izan ere, azken hamar urteotan, 50.000 etxebizitza bukatu dira, aurreko hamarkadan egindakoak bikoizten dituen kopurua.

Aldi osoa aztertuta, igoera hori islatuta ikus dezakegu, eta baita igoerak etxebizitza multzoan izandako eragina ere: 1981. urteaz gero, etxebizitza kopurua % 30 handitu da, eta gaur egun 315.000 unitatetik gorakoa da.

## 8.4. LA VIVIENDA

El parque de viviendas ha crecido de forma importante a lo largo del periodo considerado. Desde 1957 y hasta mediados de los años setenta prevalece el efecto derivado del incremento de la población, con especial importancia del componente inmigrante y de la mejora global de las rentas de los hogares.

A partir de 1986, aunque se produce el estancamiento de la población, comienzan a gestarse los factores que sustentan la creciente demanda de vivienda, asociados a la disminución del tamaño de las familias y del número de generaciones que reside en un mismo hogar.

Así, el incremento de las viviendas se sustenta en la demanda generada por la entrada en el mercado de las generaciones del baby-boom (menores de 45 años), el cambio en las familias (monoparentales, unipersonales, personas de edad que viven solas) y el recurso a ésta como bien de inversión.

En los últimos años el número de viviendas terminadas ha experimentado un fuerte incremento. De hecho en los últimos diez años se han finalizado 50.000 viviendas, cifra que duplica ampliamente la de la década anterior.

El perfil del conjunto del periodo refleja dicho aumento, así como su efecto en el parque de viviendas: desde 1981 su número ha aumentado en un 30% y en la actualidad supera las 315.000 unidades.

**Bukatutako etxebizitzak**
**Viviendas terminadas**

**Aldi bakoitzeko urteko batez besteko kopurua** / Número medio anual del periodo




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

## 8.5. POBRETASUNA ETA ONGIZATERIK EZA

Pobretasun-arriskuko egoerek –hau da, potentzialki oinarrizko premiei erantzun ahal izateko aski ez diren sarrera ekonomikoak izatea– era mugatuan erasaten diote Gipuzkoako biztanleriari, zehazki hogeita bost etxetatik batean baitute eragina, eta berrogeita hamar pertsonetatik batengan, gutxi gorabehera.

Hala eta guztiz ere, ongizaterik ezaren arriskuko egoerak –hau da, gizarte jakin batean, ongizatean eta erosotasunean espero daitezkeen gutxienezko mailetara iristeko sarrera ekonomikoak izateari lotutakoak– proportzio handiagokoak dira, bost pertsonatatik ia bati erasaten baitiote.

Beraz, hazkunde ekonomiko handia eta biztanle bakoitzeko errentan izandako aurrerapen handia gorabehera, gizarte-ezberdintasunak egon badaudela ere hauteman daiteke, nahiz eta eragina txikiagoa izan beste lurralde batzuetan baino.

Nolanahi ere, gure gizartean pobretasun-arriskuen joera goranzkoa dela aurreikus daiteke, bizi-estiloen eta ohitura zein jokabide sozialen aldaketaren ondorioz.

Ildo horretan, alderdi batzuk aipa ditzakegu, hala nola, familiakoen arteko loturak hain sendoak ez izatea, edo guraso bakarreko familien eta diru-sarrera eskasak dituzten adineko pertsonen etxe kopuruen igoera.

## 8.5. LA POBREZA Y LA AUSENCIA DE BIENESTAR

La existencia de situaciones de riesgo de pobreza, es decir, con una disponibilidad de ingresos económicos potencialmente insuficientes para hacer frente a la cobertura de las necesidades más elementales, inciden de manera limitada entre la población guipuzcoana, afectando a uno de cada veinticinco hogares y una de cada cincuenta personas, aproximadamente.

No obstante, las situaciones de riesgo de ausencia de bienestar, asociadas a una disponibilidad de ingresos económicos para alcanzar unos niveles mínimos de bienestar y comodidad esperados en una determinada sociedad, alcanzan una mayor proporción, casi una de cada cinco personas.

Por tanto, a pesar de la fuerte expansión económica y del importante avance de la renta per cápita se percibe, aunque con menor incidencia que en otros ámbitos territoriales, la existencia de desigualdades sociales.

No obstante, puede preverse una tendencia al alza de los riesgos de pobreza en nuestra sociedad, como consecuencia de las modificaciones de los estilos de vida y de los hábitos y comportamientos sociales.

En este contexto pueden mencionarse aspectos tales como la menor solidez de los lazos familiares y el aumento de los hogares monoparentales y de personas mayores solas con reducidos ingresos.

**Pobretasuna**
La pobreza

%

| | **Etxeak** Hogares | **Pertsonak** Personas |
|---|---|---|
| **Pobretasun-arriskua**/ Riesgo de pobreza | 4 | 2 |
| **Ongizaterik ezaren arriskua** / Riesgo de ausencia de bienestar | 21 | 17 |

**Iturria**/Fuente: **Eusko Jaurlaritza, 2004** / Gobierno Vasco, 2004

# 9

# EUSKARA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

# EL EUSKERA Y LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN



# 9. EUSKARA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

## 9.1. EUSKARA

Azken hamarkadetan, demokraziarekin eta Eusko Jaurlaritza eratzearekin batera, Gipuzkoako biztanleen artean euskara berreskuratzeko prozesua aintzat hartzekoa izan da.

Eskura ditugun datuak zahar samarrak badira ere, esan daiteke biztanleria euskalduna gehiengoa dela jadanik Gipuzkoan, haien artean hainbat alfabetatze-maila egon arren. Hamarkada honen hasieran, % 52koa zen biztanle euskaldunen proportzioa.

1986. urtean, Europar Batasunean sartu ginen urtean alegia, eta gobernu autonomikoak bere jarduerari ekin eta urte gutxi batzuk igaro zirenean, portzentaje hori % 44koa zen. Harrezkero, biztanle euskaldunen kopurua pixkanaka igo da, eta halaber igo da euskaldunen portzentajea biztanleria osoarekin alderatuta.

Euskalduntzeak alde nabarmenak ditu, adin taldea zein den kontuan izanda. Horrela bada, eskura ditugun azken datuen arabera, 5 eta 19 urte bitarteko gipuzkoar biztanleen % 82k euskalduntzat du bere burua.

# 9. EL EUSKERA Y LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

## 9.1. EL EUSKERA

Durante las últimas décadas, asociado a la adopción de la democracia y la constitución del Gobierno Vasco, el proceso de recuperación del euskera ha sido apreciable entre la población guipuzcoana.

Aunque los datos disponibles adolecen de una cierta antigüedad, la población euskaldun, con diversos niveles de alfabetización, es ya mayoritaria en Gipuzkoa, cifrándose en el 52% a inicios de la presente década.

En 1986 momento de la incorporación a la Unión Europea y cuando todavía habían transcurrido pocos años desde el inicio de la actividad del gobierno autonómico, este porcentaje era del 44%, observándose desde entonces un paulatino proceso de aumento de la población euskaldun, así como de su porcentaje con relación a la población total.

La euskaldunización varía significativamente por grandes grupos de edad. Así, los últimos datos disponibles reflejan que el 82% de la población guipuzcoana de 5 a 19 años se considera euskaldun.

**Biztanle euskaldunen kopurua**
**Población euskaldun**

**Biztanle guztien %** / % de la población total




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

## 9.2. INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera aldaketa handiak sortzen ari da biztanleriaren bizi-estiloan (komunikazioa, aisia, harremanak, informazioa), eta baita enpresen jardueretan eta lan egiteko moduetan ere.

Aipatutako teknologiak zein Internet duela hainbat hamarkada sortuak badira ere, horien erabilera ez zen zabaltzen hasi 1990eko hamarkadaren erdira arte, bai etxearen barruan, bai lanaren esparruan.

Aipagarria da sakelako telefonoaren hedapena, gaur egun gipuzkoar biztanleen artean oso erabilia baita, eta kontuan hartu behar dugu hamarkadaren hasieran, biztanleen erdiek soilik zutela sakelako telefonoa.

Beste alde batetik, ordenagailuaren eta Interneten erabilerak ere gorakada handia izan du azken urteotan, sakelako telefonoarena baino murritzagoa izan bada ere.

Enpresaren esparruan ere, aurrerapen handia hauteman daiteke informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin lotuta dauden tresnei dagokienez, haien artean Internet nabarmentzen delarik. Aipagarria da, halaber, Gipuzkoako enpresen konexioaren kalitatea.

## 9.2. LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

El uso de Internet y de las tecnologías de la información y de la comunicación está provocando profundos cambios en el estilo de vida de la población (comunicación, ocio, relación, información) y en la actividad y formas de trabajo en las empresas.

Aunque estas tecnologías, así como Internet, datan de hace varias décadas, su utilización no empieza a generalizarse hasta mediados de la década de los 90 tanto en el ámbito domestico como laboral.

Destaca la implantación del teléfono móvil, utilizado masivamente en la actualidad por la población guipuzcoana, cuando a inicios de la década disponía del mismo la mitad de la población.

Asimismo la utilización de ordenador e Internet han registrado un fuerte avance en los últimos años, aunque más limitada que el teléfono móvil.

En el ámbito empresarial se observa asimismo un fuerte avance en la dotación de las herramientas asociadas a las tecnologías de la información y de la comunicación, entre las que destaca Internet, y la calidad de la conexión de las empresas guipuzcoanas.

### Informazioaren gizartea
### La sociedad de la información

%

| | 2000 | 2006 |
|---|---|---|
| **Sakelako telefonoa duten pertsonen kopurua**<br>Personas con teléfono móvil | 53 | 89 |
| **Etxean ordenagailua duten pertsonen kopurua**<br>Personas con ordenador en el hogar | 38 | 61 |
| **Etxean Interneten ibiltzeko konexioa duten pertsonen kopurua**<br>Personas con acceso a Internet en el hogar | 14 | 48 |
| **Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua**<br>Personas usuarias de Internet | 19 | 43 |
| **Merkataritza elektronikoaren bidez erosketak egiten dituzten pertsonen kopurua**<br>*Personas que realizan compras electrónicas* | 11 | 22 |
| **Interneten sartzeko konexioa duten enpresen kopurua**<br>Empresas con acceso a Internet | 27 | 56 |
| **Internet erabiltzen duten eta banda zabala duten enpresen kopurua**<br>Empresas usuarias de Internet con acceso de banda ancha | 26 | 71 |
| **Merkataritza elektronikoa erabiltzen duten enpresen kopurua**<br>Empresas usuarias de comercio electrónico | 2 | 12 |

**Oharra: 15 urteko eta hortik gorako biztanleak** / Nota: Población de 15 y más años
**Iturria**/Fuente: **Eustat eta Gipuzkoako Foru Aldundia** / Eustat y Diputación Foral de Gipuzkoa.